



Dioxinak, pestizidak, metal astunak...

Otordu bakoitzean kutsatzen gara

Net Hurbil

Gastuak puztuz
aberasten da
farmaindustria

Emile Larre

«Apez eta laborari,
biak berdin maite
ukan ditut»

Marino Goñi

musika kritikaria
«Taldeetan
garrantzitsuena
nortasunari eustea
da, eta euskara
plusa da»

Leire Beteta

ingurumen teknikaria
«Pasaia
kanpo kaiaz agertu
duten bakarra
marrazkiak dira»





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com





Azaleko argazkia:
CHARHADAS.COM
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



gizarte
kutxa
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko uztailaren 24a, 2.286. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Antonio Álvarez Solís:** «Espainia ulertzea oso zaila da». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Elikadura-osasuna.** Jatearen arriskua. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Emile Larre:** «Baikorrango naiz euskararekin, federekin baino». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Roberto Díaz Gomar:** «Nazioarteko militantzia utzi nuen, antzezle lanetan zentratzeko». JOANES ETXEBARRIA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Gutarrismotik kamikazismora eta buelta. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Ad ignoratiam falazia.** IÑAKI ODRIOZOLA / 22
- **Txandan** Koherentzia. JOXERRA GARZIA / 22
- **Kirola eta txukuntasuna.** KOLDO ALDALUR / 24
- **Hiruko txikian** Ez dizkizute. JOXEMARI OSTOLAZA / 24
- **Bertso berriak** Interekonomiari jarriak. MIREN AMURIZA / 25

Erdiko kaiera

- **Marino Goñi:** «Mugimendu ikaragarria ekarriko du krisiak gazteen musikan». IKER BARANDIARAN / 26
- **Bidaia** txepelaren gida. GORKA BEREZIARTUA. / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Leire Beteta:** «Pasaiko kanpo kaiaren proiekturik ez da existitzen». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 39
- **Mundubat.** Ehun proiektu berdintasunaren eta garapenaren alde. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Maria Gonzalez Gorosarri:** «Ez dakizu zer ikusten zabiliztan, edo albistegiak edo 'Euskadi Directo'». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Benetan hainbeste kostatu da botika garesti hori? PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Saiak, putreak eta arranoak.** ANUNTXI ARANA / 50



“Espainia ulertzea oso zaila da”

Antonio Álvarez Solís I
Interviu-ren sortzailea

Maria Teresa Camposen programan zein Bilduren zerrendetan agertu litekeen bakarrenetakoa.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Judit Fernandez

Esplikatuko didazu nola izan daitekeen kristaua komunista izanda?

Ezinezkoa da kristaua izatea komunista izan gabe.

Batzuentzat, Mieres-en sortu, Madrilen bizi eta euskal abertzalea izatea ere ezinezkoa da, baina...

Ni euskal abertzalea naiz, abertzale katalana, bretoaia, korsikarra edo eskoziarra naizen bezalaxe. Sistema burgesaren heriotzaren ikurrak diren estatuen aurka nago. Politikoki, sozialki, ekonomikoki, zein kulturalki, estatu polizialak dira.

Hara espainiarra izateaz latsatzen den bat!

Nola sentituko naiz ukazio eta agresio sistema honen parte? Ez naiz espainiarra, ez daukat etsai bat asmatu beharrik nire bizitza justifikatzeko.

Bildukoa izan zintezkeela sumatzen zutelako bota zintuzten EITBtik, ala EITBtik bota zintuztelako sartu zinen Bildun?

Behinolako lan klandestinoetatik egungo obra agerikoetara beti egon naiz horizonte ideologiko berean. PPkoek bota ninduten estatu mailako uhinetatik eta sozialistek lurperatu ninduten. Zer nahi duzu, oso gobernu ahulak dauzkagu.

Gobernu ahulak?!

Ahularen erantzuna beti da bortitza. Ez dago ahula baino krudelagorik. Ideiarik gabe, kudeatzeko oso tresna nekeza da boterea.

Horregatik egiten dituzte egiten dituzten sarraskiak.

Ez naiz harritzen medio batzuentzat Madril komandokoa izateaz.

Oso isolatuta bizi naiz Madrilen, nire zuloa den nire etxean. Zer egingo zaio. Espainia ulertzea oso zaila da, ez dauka inolako kultura demokratikorik. Beti izan da *caudillo*-en herri bat, joko intelektuala ulertzeko orduan aski motza.

Zu maiatzaren 15a baino lehenago indignatu zinen, ezta?

Fitsik egin gabe dirua pilatzean oinarritzen den sisteman eraikitako gizarte bati begira gelditzea nahi zenuen, ala? Ados, pentsioa 1.000 eurora iristen zaidalako pribilegiatua naiz, baina...

Bainak ortuan, 82 urterekin lan egiten segituz gobernuari arrazoi ematen zabilta!

Bokazioak ezin direnez jubilatuz, ez daukat erremediorik. 82 urterekin ezin da ametsik egin, nire geroa biharamuna da, etengabeko orainaldian bizi naiz.

Bokaziozko kazetarien mitoa behin betiko iragana ez ote den...

Kazetaritzak sustantzia galdu du, enpresen menpe dago, egitura finantzarioen parte da. Hedabideak merkantilizatu direnetik, zuzendariak administrazio kontseiluen txotxongi-loak dira, eta arlo ekonomikoak erabakitzen du. ■

Elikadura-osasuna

Jatearen arriskua

Janari faltaren arazoa ez dugunoi, jaten duguna bihurtu zaigu problema. Otordu bakoitzean substantzia kimiko kutsagarriak sartzen ditugu gorputzean; mokadu batek ez digu kalte egingo, baina substantzia horietako asko luzaroan geratuko direnez gure organo, ehun, zelulei itsatsita, zalantza da ea zenbatgarren mokaduaren ondoren ordainduko duen faktura gure osasunak. Elikadura-industria handiaren metodoek eta araudi bigunegiek daukate errua, askok salatzen dutenez.

UNAI BREA



DIETA OSASUNGARRIA EGITEKO gomendatzen digute etengabe agintari sanitarioek, familia-medikuak eta hedabideek, esku artean duzun honek barne. Begira ezazu zure hozkailuan, edota jakiak gordetzen dituzun armairuan: ontzi eta estalki askotan idatzita aurkituko dituzu elikadura egokiaren gakoak. Ontzi eta estalki horien barruan dauden substantzia kutsatzaile askoren aipamenik, berriz, letrarik txikienean ere ez zaizu agertuko. Honenbestez, gomendatzen

diguten dieta osasungarri hori egitea posible ote den galdetu behar diegu geure buruei.

Herrialde garatueta bizi gehienok supermerkatuetan erosten dugu jaten eta edaten dugun gehiena. Horrek esan nahi du elikagaien enpresa erraldoiek kontrolatzen duten prozesu industrialaren azken kate-begia dela gure mahaira iristen dena. Sistema horren ondorioetako bat —esparru sozioekonomikoan ematen diren zenbait injustizia ere



TERRY DARG

aipa genitzake— elikagaietan agente kutsatzai-leak agertzea da.

GRAIN, nekazari txikien defentsan diharduen nazioarteko GKEak, sakon aztertu du arazoa joan den ekainean argitaratutako txosten mardulean: *Elikagai-osasuna norentzat? Enpresen oparotasuna jendearen osasunaren aurka*. Merezki du dokumentuaren hasiera bere horretan ematea:

“2009an, bakterio arriskutsu batekin kutsatutako 200.000 kilo okela iritsi ziren estatubatuar eskola askotako umeengana, herrialdeko bigarren paketatze-enpresa handienak pozotitutako haragia erretiratzea lortu aurretik. Urtebete lehenago, Txinan, sei haur txiki hil ziren, eta beste 300.000k giltzurrunetako gaitz larria izan zuten, esneki ekoizlerik handienetako batek bere esne-erreserbei produktu kimiko industrial bat gehitu ziolako. Mundu osoan jendea gaixotu eta hiltzen da jaten duenaren ondorioz, sekula aurretik ezagutu ez den eskalan. Gobernuen eta enpresa handien erantzuna era guztietako arau eta erregulazioak dira, baina horietako gutxiak dute benetako zerikusia osasun publikoarekin”.

Datuek adierazten dute elikadurarekin zerikusia duten intoxikazioak ohikoak direla herrialde gehienetan. Kanadan, esaterako, 2008-2010 epealdian populazioaren %40 gaixotu zen urtero arrazoi horrenatik, NBERen iturrietatik GRAINEk jasotako estatistiken

Urtero, mundu osoan, 1.500 milioi lagun gaixotzen dira jaten dutenaren erruz. Horietatik, hiru milioi hil egiten dira

arabera. Muturreko kasua da, txostenean aipatutakoen artean. AEBetan %15ekoa da portzentajea, eta Europar Batasunean %10 baino gutxiagokoa. Bitxia da Singapurreko kasua: gaixoen portzentajea %0 da, elikadura-osasun sistema oso zorrotz bati esker. Asiako herrialde horretako agintariek zabaldu dute, hain zuzen, GRAINEk emandako datu hau: urtero, mundu osoan, 1.500 milioi lagun gaixotzen dira jaten dutenaren erruz. Horietatik, hiru milioi hil egiten dira.

Kimikak inbaditu du gure menua

Gure dietan leku hartu duten kutsatzaile gehienak konposatu kimikoak dira. Osasunaren Aldeko Europako Ituna eta Générations Futures elkarteek egindako ikerketa baten arabera, agintariek gomendatu ohi dituzten jakietan —osasungarri jatearen sinonimo diren horietan, beraz— dozenaka produktu kimiko kaltegarri aurkitu daitezke. Zehazki, 128 substantziaren zantzuak atzeman zituzten; horietatik 47, kantzerigenoak edo ustez kantzerigenoak. Dioxinak, metal astunak, pestizidak... Janari eta edarietan bakarrik ez, haiek gordetzeko erabiltzen diren plastikozko ontzietan ere agertzen dira kutsatzaileok. Zenbait kasutan, berotzearekin batera plastikotik askatu eta elikagaietara igarotzen dira.

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik, 100.000 molekula berri asmatu dira, eta

kopurua etengabe doa gorantz. Substantzia horiek gure ingurumena inbaditu dute eta elikagaietan ez agertzea izango litzateke harri-garriena. Inork ez du zalantzan jartzen horietako asko gure gorputzetara ailegatzeko direnik jaten eta edaten dugunaren bitartez, baina industria kimikoko bozeramaileak saiatzen dira horri garrantzia kentzen, substantzia horien kopuru txikiegiak hartzen ditugula argudiatuz. “Dosiaren arabera doa da zerbait kaltegarria izatea ala ez”, Parazelsoren esaldi ospetsua ekartzen dute gogora halakotan.

Pilatuz doazen kutsatzaileak

Parazelo, XVI. mendeko medikua, zur eta lur geratuko litzateke gure jendarte modernoak sortutako produktu arrisku-tsuen katalogoa ezagutuko balu. Horietako asko biometagarriak dira, hots, gorputzean pilatuz doaz, behin gudan sartuta oso zaila delako iraztea. Dosi batek ez digu kalterik egingo, egia, baina zenbatgarrenetik aurrera hasi behar genuke kezkatzen?

Joan den martxoan Net Hurbil atalean (ARGIA, 2.267 zbkia.) azaldu genizuen, Marie-Monique Robinek gai hau aztertu du *Notre poison quotidien* (Gure eguneroko pozoia) dokumentalean. Bertan, besteak beste, Eguneke Dosi Onargarriaz mintzo da frantziar kazetaria. Elikagaien arrisku maila zelatatzeke sortu diren erakundeek asmatu dute kontzeptua, “industriari aitzakia emateko”, Erik Millston, Brighton-eko Unibertsitateko irakasleak Robini adierazi zionez: “Kontzeptu sasi-zientifiko horren beharra zuten, gai kimiko toxikoak usatzeko eskubidea zutela erabaki dutenek”. Esan gabe doa Eguneke Dosi Onargarriak ez daukala zentzu handirik organismoan etengabe metatuz doan konposatuez ari garenean. Kutsatzaile toxiko iraunkor (KTI) esaten zaie, eta elikagaiak ez ezik, mota guztietako kontsumorako artikuluetan daude.

KTI ezagunetako bat dioxinak dira. Oso konposatu kutsagarriak dira, kantzerigenoak, eta hainbat prozesu industrialen ondorioz sortzen dira, baita erregai fosilak erretzean edo hondakinak erraustean ere. Oso egonkorak dira eta nonahi daude. Aurtengo urtarrian, Alemaniako agintariek 4.000tik gora abere-etxalde itxi zituzten, enpresa batek dioxinekin kutsatutako 200.000 tona pentsu saldu zituela jakin bezain laster. Eskandalu galanta izan zen, baina larriagoa da pentsatzea zenbat dioxina jaten ote dugun konturatu gabe. Arestian aipatutako ikerketan, Osasunaren Aldeko Europako Itunak egindako

hartan, dioxinak aurkitu zituzten aztertutako gurinean eta izokinetan, esaterako.

Zer egiten dute gobernuek?

Alemaniakoa bezalako gertakari zehatz baten aurrean, agintariek 4.000 etxalde ixtea bezain erabaki zorrotza har dezakete, baina, GRAI-Nek salatzen duenez, ez dute hain zorrotz jokatzeko —ez Alemaniakoek ez inongoek— elikagaien kutsadura sistematikoari aurre egiteko. “Oro har, ez dute ezartzen industria handientzat galga izan daitekeen inolako neurririk.

Gobernuek legeak egiten dituzte, baina industria da irizpideak finkatzen dituenak”.

Miquel Portak, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Osasun Publiko katedradunak, honakoa esan zuen joan den maiatzean, *XL Semanal* espainiar aldizkarian: “Gobernuek neurriak hartzen dituzte, baina oso astiro”. Frantziako Osasun Ministerioak ikerketa bat hasi berri du, 20.000 lagunen gaitasunak zein agentek eragiten dituzten jakiteko. Pertsona horietako bakoitza jaiotzen den unetik 20 urte bete arte behatuko dute. Eta bitartean? “Gauza batzuek ez gaude oraindik seguru”, zioen maiatzean Portak, “baina beste batzuek bai; KTIen eraginaz dakiguna nahikoa litzateke askoz politika eraginkorragoak ezartzen hasteko, eremu publikoan zein pribatuan”.

Kimikarekin ezkonduetako industria

Dioxinak industriatik ingurumenara eta handik gure platerara doazen KTIen adibideetako bat dira. Beste askotan, mota horretako konposatuen presentzia zuzenean da elikagaien industriaren jokabidearen ondorioa. Orain dela urte batzuk definitu zen “hamabikote zikina” izeneko zerrenda, osperik txarrena zuten KTIek

Hegazkina herbizida botatzen AEBetako gari zelai batean.



GRANT HEILMAN


Metilmerkurioa, arrainarekin batera jaten dugun neurotoxina

Espainiako Ecologistas en Acción elkarteak zabaldu-tako prentsa-ohar baten arabera, merkurioa gero eta ugariagoa da munduan. Industria da haren igorle nagusia, batez ere ikatzarekin funtzionatzen duten zentral termikoak eta, hein txikiagoan, kloroa ekoizten duten fabrikak. Zenbait prozesu naturalek ere, sumendien erupzioek berbarako, merkurioa emititzen dute, baina askoz kopuru txikiagoetan.

Oso lurrunkorra denez gero, erraz zabaltzen da airetik, eta emisio-puntutik oso urrunera iritsi daiteke. Zati handi bat, azkenik, itsaso, ibai eta lakuetak uretara doa. Han, urarekin kontaktuan, metilmerkurio bihurtzen da, eta horixe da hain justu metal astun honen formarik toxikoa.

Leticia Baselga Ecologistas en Accióneko kideak dioskunez, “metilmerkurioa aurkitu daiteke jaten dugun arrain eta marisko guzti-guztian”. Konposatua pilatu egiten da animalien gorputzetan, eta gero, arraina edo mariskoa jaten dugunean, gurean. KTlei buruz esan dugunak balio du hemen ere: behin barruan dugula, bertan geratuko da. Izan ere, merkurioa ez da sekula desagertzen ingurumenetik. “Edozein pertsonak bere gorputzean daukan metilmerkurio kopuru arrunta milioiko 3-4 partekoa izaten da; zazpitik gora hasten dira arazoak”, azaldu du Baselgak.

Arazo horiek era askotakoak izan daitezke, baina metilmerkurioak, gehienbat, umeei eragiten die. Neurotoxina bat da, alegia, erraz sartzen da burmuinean, eta adin txikikoen kasuan, haren hazkunde normala oztopatzen du. Hala, atzerapenak eragin ditzake garapenez ekologisten ustetan, Espainiako Elikadura-segurtasunaren Agentziak arrain kontsumoari buruzko hainbat gomendio egin ditu publiko, merkurioaren presentzia dela eta. Arrisku taldeei ohartarazi diete batez



WWW.PULSARWALLPAPERS.COM

Metilmerkurio gehien daukaten arrainak urte asko bizi diren harrapari handiak dira: atuna (argazkian), ezpata-arraina, marrazoa...

ere; kontua da arrisku taldeak populazioaren zati handia direla: umeak, umeei bularra ematen ari zaizkien amak, eta haurdun dauden edo noizbait egoteko asmoa daukaten emakumeak.

Arrain guztiek daukate metilmerkurioa, baina askoz kopuru handiagoak agertzen dira urte asko bizi diren harrapari handietan: atuna, ezpata-arraina, marrazoa... Horiek bereziki saihesteko gomendatzen zaie arrisku taldeei.

Hain kutsatzaile zabaldia eta arriskutsua izanagatik, zaila da haren eragina norainokoa den esatea. “Espainian, konparazio baterako, ez dago merkurioz kutsatuko daturik”, dio Leticia Baselgak, “eta horren arrazoia sinplea da: norbera txarto sentitzen hasten denetik diagnostikoa egin arte urteak igaro daitezke. Ez da erraza merkurioa atzematea gorputzean, eta behin hor dagoela jakinda ere, ez dakite oso ondo nola kendu”.

osatua. Lehen hamabi horietatik –zerrenda handituz joan baita–, hamaika pestizidak dira.

Jane Goodall-ek, *Harvest for hope* (Itxaropenerako uzta) liburuan, honakoa dio pestiziden bilakabidez: “Bigarren Mundu Gerratik aurrera, zientzialariei otu zitzaientean gerran erabilitako gas toxikoa laboreetako intsektuen aurka erabil zitekeela, nekazaritzaren industria gero eta gehiago egon da kimikaren menpe. (...) Pestizidak lehen aldiz erabiltzean, intsektuak berehala hiltzen ziren. Baina gutxika-gutxika erresistentzia garatu zuten, eta ondorioz sarriago eta pestizida toxikoagoak erabiltzea fumigatu behar zen. Gaur egun [liburua 2005ekoa da], nekazariak orain 40 urte baino hiru aldiz produktu kimiko gehiago erabiltzen dute, intsektu berdinak hiltzeko”. Gero, geuk jaten ditugu pestizida horiek. Eta herbizidak, eta fungizidak...

Isabelle Saportak, *Manger peut-il nuire à la santé?* (Jatea kaltegarria izan daiteke osasunerako?) dokumentala zuzendu zuen kazetari frantziarrak, honakoa esan zuen produktu kimiko horien erabileraz *XL Semanal*-eko erreportaje berean: “Gure ikerketan agerian geratu da laboreak gordetzeko siloetan intsektizidak eta fungizidak erabiltzen direla. Hori saihestu liteke siloetan tenperatura baxua mantenduta, baina hozte-sistemak ezartzeko 13 euro gehiago gastatu behar da labore tona bakoitzeko, eta industria, gehiena behintzat, ez dago hori ordaintzeko prest”.

Antibiotikoak, etxalde handietako eguneroko ogia

Produktu kimikoak ez dira arazo iturri bakarra. Hor daude, nola ez, transgenikoak. Dagoeneko landu izan dugu gaia, eta landuko



Nekazaritza eta abeltzantza industrialaren gehiegizko tamaina dira elikagaietako kutsaduraren arrazoietako bat, GRAIN elkartearen iritziz.

dugu etorkizunean ere, beraz ez dugu erreportaje honetan horietaz jardungo. Bai, ordea, antibiotikoez.

Munduko antibiotiko kontsumitzaile nagusiak ez gara gizakiok, etxaldeetako aziendak eta haztegiatako arrainak baizik. Herrialde askotan, abeltzantza intentsiboa egiten duten enpresek sistematikoki ematen dizkiete antibiotikoak abereei, gaixo egon ala ez, janariarekin batera. Arrazoi birengatik egiten da hori: elikadura eskasak eta bizi-baldintza eskasagoek eragindako gaitzak prebenitzeko, eta azkarrago hazteko, itxuraz hori ere lortzen baita antibiotikoekin. GRAINen txostenean irakur dezakegu AEBetan aziendek kontsumitzen dituztela antibiotikoen %80a. Txinan, %50a. Europar Batasunean debekatuta dago gaixo ez dauden animaliei ematea, baina hala ere abereek gizakiek baino gehiago hartzen dute.

Erabilera sistematiko horrek ondorio larriak ditu. GRAINen txostenean irakur dezakegunez, superbakterioek —ohiko antibiotikoekiko erresistentzia garatu duten bakterioek— txerri haztegi industrialetan aurkitu dute garatzeko leku ezin aproposagoa. Bertan, oso aldaera arriskutsuetara eboluzionatu dezakete, eta nahiko azkar gainera, animalia kopurua handia izateak hala egitea errazten dielako batetik, eta antibiotikoak barra-barra erabiltzea erresistentziaren garapena azeleratzen duelako bestetik. “Medikuak gero eta kezkatuago daude”, dio GRAINek, “honek guztiak giza-osasunari eragin diezaiokeen kalteaz, antibiotikoek eraginkortasuna galdu deza-

“Gobernuek ez dute ezartzen industria handientzat galga izan daitekeen inolako neurririk. Legeak egiten dituzte, baina industria da irizpideak finkatzen dituen”

GRAIN NEKAZARIEN DEFENTSARAKO GKE

kete eta”. Osasunaren Munduko Erakundeak esan du egoera hau dela “giza-osasunerako mehatxurik handiena”.

Tamainaren arazoa

Elikagaiak sortzeko sistema industrialak da elikadura-osasunaren eremuan arazo gehienentzat jatorria, GRAINen ustez. Batetik, jarduera intentsiboagatik; pestizidek, herbizidek, antibiotikoez... dagoeneko aipatu ditugun ondorio kaltegarriak dauzkate. Bestetik, tamainagatik: kalitate txarreko okela ekoizten duen etxalde txiki batek inpaktu txikia edukiko du; produkzio eredu industrialak, bere etxalde erraldoiekin, arriskua handitzen du, sortzen dituen elikagaiak kontsumitzaile askorengana iristen direlako. Begira, bestela, erreportaje hasieran aipatu ditugun zifrei: 200.000 kilo okela kutsatuta AEBetan, 300.000 ume gaixotuta Txinan.

Ez da harritzekoa, honenbestez, gero eta ahots gehiagok esatea elikagaien kutsadura dela azken hamarkadetan hainbeste gaitzen intzidentziak gora egitearen zergatia, edo zergatietako bat behintzat —bestelako kutsadurek ere bai baitute erruaren zati bat—. Minbizia, gaitz neurodegeneratiboak, ugalketari lotutakoak, obesitatea, diabetesa eta gaixotasun autoimmuneak ugaritu egin dira. Munduaren alde aberats honetan bizi-itxaropena handitu izana elikaduraren hobekuntzari —besteak beste— egozten zaio, baina baliteke elikaduraren erruz —besteak beste— kontrako gertatzea hemendik aurrera. Behin behin, hala iragarri zion Linda Birnbaum medikuak Marie-Monique Robini, *Notre poison quotidien* filman. ■

Emile Larre

«Baikorrango naiz euskararekin, fedeararekin baino»

Apeza, *Herria* astekariaren zuzendari izana, euskaltzaina, idazlea... Hamaika lan eta bat gehiago egin da Emile Larre. Piarres Lafitte, Piarres Larzabal, Teodoro Hernandorena... Mundu bat, mende bat kasik, bizi izana da. Historia bizia Euskal Herrian.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

“Itzaleko langilea izan da Emile Larre. Bere izena ez da lehen planokoa izan inoiz, baina lan gaitza egin du bere bizian, eta euskal kulturaren eta hizkuntzaren aberasten anitz parte hartu du”. Eneko Bidegainek zutaz egin duen *Bidegileak* liburuxkan dioena. Horrek ekarri gaitu zugana.

Ene mundua da hori, bai, kultura eta hizkuntza. Euskalduna izana naiz beti, euskal giroan hazia. Seminario ttipira joan nintzen 11 urtetan, eta etxera igortzen nituen gutunak beti euskaraz egiten genituen bai amak eta bai nik. Amak on zekien hori, eta nik ere bai. Etxean, bestalde, beti euskaraz mintzo ginen. Nekazariak ginen Baigorri, euskaldunak, eta apezgoan hasi nintzelarik, han ere erdiak pasa euskaldunak ginen, eta bertze erdia baino gutiago, biarnesak. Euskaldunek bagenuen gure gisako kluba, pilotako, eta idazkerako. Koaderno bat bagenuen, eskuz esku pasatzen genuena, eta han bakoitzak egiten zuen artikulatu bat eta besteari pasatzen zion. Beti euskaraz gu. Seminarioan, suete ukan nuen, [Piarres] Lafitte izan baienuen irakasle.

Uste nuen frantsesez mintzo zela Lafitte, ez euskaraz...

Frantseseko irakasle zen Lafitte, eta beste irakasle guztiak bezala, frantsesez ari zen hura eskola guzietan, eta ikastetxe guzietan. Ordea, Lafittek bere baitarik asmatu zituen bazter-eskola batzuk, euskara irakasteko. Baina bere lanez kanpo. Ordurako, *Herria* aldizkariaren

zuzendari zen, hori ere lanez gainera, eta beste irakasle guztiak bezainbat edo gehiago lan bazuen jadaneko! Horien gainera, euskarazkoa egiten zuen. Gero, bikario ezarri nautenean, herri euskaldunetan beti, han nik Lafittek bezala egin dut, euskara maiteago nuen, euskaraz aiseago ari nintzen. Beti izan dut hori. Gero, abantzu 40 urte nituela, galdatu ninduen *Herria* zuzentzeko. Ez dut nik euskararendako postu bat ukan sekula, Lafi-

Nortasun agiria

Emile Larre (Baigorri, 1926). Apez, euskaltzain, idazle, *Herria* aldizkariaren zuzendari izana hogeita hamar urtez baino gehiago, *Sokorri* ezizenez sinatu ohi zituen bere artikulatuak. Bertsolaritza sustatzen lan egin, eragile ari izan da urte askoan, euskararen eta euskal kulturaren faboretan beti. Garai batean, Ipar Euskal Herrian euskararen munduak erreferenteetako bat izan du Emile Larre. *Aiherra Naparroan leihoa* (1980) eta *Ene artzain-etxolak* (2001) ditu publikatuak, eta hainbat idazleren lanak bildu eta argitaratuak. Sari eta omenaldiak jaso dituena, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak (1983) eta Sarako Idazleen Biltzarrak (1998) ohoratu dute. Oraindik orain haren bizi eta lanak ezin hobeki bildu ditu Eneko Bidegainek *Bidegileak* bildumako lanean.





Xalbador

"Xalbador txistukatu dutelarik, ez zutelarik ulertua —arrazoia hori baitzen, ez da besterik eta nik ez dut begia hesterik kantatu baitzuen—, ixterik, edo itxitzerik erranen zuten giputzek, baina "ez, bi aldiz erran du besterik!", erran zuten. Basarrik, bere boz handiarekin, erran zuen *Zeruko Argian*, edo *Anaitasunan*, "ez da kristau ahotik jalgai holako bertsorik". Orduko, Basarrik ikusia zuen nik ezarria, zer zuen zinez errana Xalbadorrek. Basarri ez zen airera mintzo, gaitzitua zen, aitzineko urtean kendua baitzioten txapela Uztapideri emateko. Mixel Itzaina eta biok txundituak ginen, biak zinez onak ziren, baina Basarri..."

ttek bezala. Lan hura egin dut, beti ordaindu gabea.

Lafittek galdatu zintuelarik *Herria* zuzentzeko, baldintza ezarri zenion zuk.

Hori bazenekien? Diru kontuetan gaizki zebilen *Herria*, banekien hori. Gauzak arras gaizki ziren, "ez da segitzen ahalko!" erran nion Lafitteri. Arrats hartan ilun-ilun gelditu ginen biak. Labegerieren andrearen hileta eguna zen. Hartu nuen Lafitte Uztaritzen eta eraman nuen Kanbora, eta gero itzuli Uztaritzera. Lafittek hau erran zidan: "Eginen dugu ahal duguna, eta ahal dugunol!". Etxera heldu eta pentsatu nuen: "Lafittek ez duk uzten ahal horrela!", eta telefonatu nion. "Saiatuko naiz".

Ama aipatu duzu arestian, aitarik ez. Non zen zuen aita?

Aita ere han zen, bistan da! Baina amak ditu letrak egiten, gutunak. Aitak aski bazuen etxeko lanean. Langile ona zen aita, etxaldea ongi erabiltzen zuen. Emazteen lana zen idaztea! Emazteen lana zen joatea enkarguak egitera, komisioneak egitera, behar zirenak eroatera... Aita joaten zen merkatura, zerbait baldin bazen edo paperak zuzentzeko... Baratzera ere amak, salbu behar zela lurra itzuli edo zerbait. Gizonek egiten zuten lur itzultzea, behien azpiak ateratzea, hondarrak landara edo alorrera eramatea... Emazteen lanak, eta gizon lanak!

Orain ere horrela dira?

Ez, ez, ez. Ez dira batere horrela. Jadanik ene anaia ikusi nuen lehen aldikoz emazteari laguntzen. Emazteak baxerak bazituelarik egiteko, ikusi dut ene anaia, hartu xukadera eta baxera xukatzen. Gure aita ez. Aitaren denboran ez zen hori egiten. Aitaren denboran badakizu nork xukatzen zituen baxerak?... Nik. Apezgaia nintzen, eta lanetik lanera ibiltzen nintzen etxean.

Maite zenuen laborantza...

Bai, bai, bai. 25 urtera arte, udan lan egin dut etxekoekin. Uztailaren lehenean etorriko ziren bakazioak, eta urriaren lehen arte, hiru hilabete banituen, etxean lanean, beti. Baziren udako koloniak ere orduan, baina ni ez nintzen libre, nik etxean behar nuen, langile eskasa zelako, eta maite nuelako! Bakazio guziak etxeko lanean pasatuak ditut. Horrela dut laborari munduarekin harremana izan.

Apez izan zinen, dena den.

Eta aitak eta amak ez naute traba sekula! Begi onez ikusi dute ene saila, baina ez naute egundaino pusatu, ez didate bururik berotu apez egiteko. Nire baitarik bildua nuen gogo

hori, katekesietarik eta ez dakit batere nondik. Aitak erran zidan: “Bankako erretore bat eginen duk behi pare batekin edo hola!”. Behi pare batekin, hala ere! Apez eta laborari, biak berdin maite ukan ditut.

Uztaritzeko seminario ttipia lehenik, Baionakoa ondotik. Abertzaletasunaren lehen hazia ernez...

Pazkoko bakazioetan, izan zen gazteen mugimendu bat, gure artekoa, 15-16 urte guk, eta Uztaritzeko seminaria bildu ginen, euskaraz mintzatzeko. Han izan dira Baionako St. Bernard kolegiokoak, eta lizeoko zenbait. Eta han ezagutu ditut Ximun Haran, beharbada Monleon medikua, Intxauspetarrak –Mixel eta Nikola–... Haiek ez ziren apez eskoletan, ez ziren kristau eskoletan ere, horiekin guziekin izan gara hor, Euskal Herriaz mintzatzen ginen, euskaraz... Oroitzen naiz, kalapita izigarria erabili genuen Intxausperekin, ez Mixel, baina Nikolarekin. “*On peut etre basque sans savoir le basque!*” (euskaldun izan liteke euskara jakin gabe!). Erraztasun handiko zen Nikola, pindarra zerion... hain zen dohatsua, xutik ez zegokeen ideia bat ere atxikiko baitzigun guri!

Oraino ere bada galdera hori: izan liteke inor euskaldun, euskara jakin gabe?

Bizi da beti kalapita. Menturaz, ez da posible teorian, baina errealtatean bai. Nola esplikatzen didazu zuk zertako dugun kezka handia: “Euskara plazaratu!”. Zertako? Konturaturik ikastolan ibiliak, euskara ikasiak eskolan, jakinki euskara... eta berak erdaraz! Ez da oraingo gaitza, hala ere. Irauten duen gaitza da, aspaldikoa! Gazte mugimendu hartan, beste bat pilotariena izan zen. Sarako De Oiartzabal *Piztia*, Fagoagatarrak –medikua eta Paul–, Larronde –istripuz hil zen 40 urtetan–... pilotari handiak ziren, luzeko ekipoa –errebotekoa, nahi baduzu–, muntatu zuten Ximun Haranekin, 19-20 urtetan, eta txapel-dun atera ziren orduko onenen kontra. Denbora berean horiek abiatu zuten abertzaletasuna. Ximun Haran-eta ziren.

1951n apezte zinen, eta bikario joan zinen Hazparnera. Piarres Larzabalen lekua hartu zenuen.

Suerte ikaragarriak ukan ditut. Piarres Larzabalekin ibili naiz. Ez nuen haren gaia, baina behar nuen segitu harekin, haren postua hartu. Larzabal joan da Hazparnetik erretore Sokoara. Eta ni, ondotik, Urruñara bikario. Bost kilometrotan ginen, eta astelehen guziz ateraldiak egin ditugu –Hegoaldera, bistan da–, nik motoa banuen, Larzabalek ez. Lafitterekin ibilia, Larzabalekin ibilia, urte bat

Laborari

“Belar epaiten aita bezain ona nintzen. Anaietan, onena. Aita arras ona genuen horretarako, eta hiru semeetan dohain hori onena izan duena ni izan nintzen. Kanpoan bertzeekin nintzen lanean, goizean belar epaiten, mahasti aitzurren eta lan guzietan, baina etortzen ginelarik arratsetan, haiek bazituzten behiak moldatzeko. Ni, amarengana, ama laguntzera. Nik ez ditut etxean behiak jetzi, ez dut etxean lan mota horietarik egin. Anaiek egiten zituzten. Nik amaren laguntzea egiten nuen”.

Zuberoan egina eta gain hura ezagutu... suerte ikaragarriak. Gero, euskara maite nuelako eta Lafitterekin pixka bat hasia nintzelako, *Herria* zuzendu dut eta harekin Euskal Herri guzia ere ibili. Hemen, misiolari izan naiz, baina barnekoa, ez Afrikako, Amerikako eta horrela, eta prediku egiten Ipar Euskal Herriko herri guzietan ibili naiz. Horiek lagundu naute anitz denekin ibiltzen.

Zertako ez misiolari atzerrian?

Ez nuen bokazio hori erakutsia egundaino, baina izaten ahal zen. Ezin izan da. Urteak zein ziren? 64-65ean edo zerbait holako, Aita Sainduak galdegin zuen. Apez eskasa bazen Afrikan, eta anitz bokazio. Galdegin zuen mundu guziko apezzei hiru urte, edo sei urte, Afrikan itzuli bat egitea. Ene lagun anitzek egin dute hori. Nik zertako ez? Hiriart Urruty da hobenduna, ene adiskide mina. Hark edo nik behar genuen egin sakrifizioa. Hiriart Urruty *Herriaren* zuzendari sartua zen, baina lehenago irakasle zen seminarioan. Bazituen han gatazka batzuk irakasleen artean, eta han zen ere Monsinore Ouzet eta beste zenbait guti. Seminarioan izan ziren orduan Manex Pagola, Gexan Lantziri, Borda bat, Sarasola Urruñakoa... Laurak ziren abertzaletasunean sartuak, eta ukan zuten seminario handian Ariztia zuzendari. Karlista zen Ariztia –hola erraten ahal da–, gogorra, eta ez zuen izan goxotasuna, abilezia aski, gazteen konprenitzeko. Hor ziren gogortu lau apezgai horiek, eta joan ziren kanpora, eta era berean joan ziren kanpora bi irakasle, Uzet eta Hiriart Urruty. Bertze postu bat ukan zuten, baina seminariotik atera ziren. Hiriart Urrutyk ukan du postu bat, eta gero bertze bat, eta ondotik, Afrikara joateko izena eman zuen, baina bistan da, hemengo kalapita horietarik eskapatzeko izan zen. Partitu baino lehen, eta Lafitterek eni erran baino lehen ere, Hiriart Urrutyk galdatu nau *Herria* zuzentzeko. Hura joan da Afrikara, ni hemen izan naiz beti, *Herria* beti hor nuelako. Hogeita hamalau urtez zuzendu dut.

Piarres Larzabalekin ezagutu duzu antzerki mundua, bertsolaritza gero.

Hura Sokoan, ni Urruñan, harengana joaten nintzen antzerkia egin behar genuelarik, edo hau eta hura. Anitz ibili gara elkarrekin, eta bata bertsolarien mundua ere, eta Teodoro Hernandorena. Etorri zitzaidan Urruñara eta egin genuen bertsolari txapelketa. Hirurehun leku zen lekuan, milaz goiti jende etorri zen. Urruñako ostatuak bete ziren. Hernandorenak harrotua zuen Hegoalde guzia, eta handik ekarri zuen mundua. Iparraldetik ere bai,



GALDE SHORTA

Ez duk hamahiru

- ▶ Piarres Lafitte, euskalduna: Eskualdun bilakatua, maitasunez.
- ▶ Piarres Lafitte, apeza: Errotik apeza.
- ▶ Piarres Xarriton: Ikaragarriko memoria, eskuaran eta denetan.
- ▶ Roger Etxegaray: Horrelakoa ere behar genuen eskualdun bat.
- ▶ Hiriart Urruty: Denetako lehena.
- ▶ Jean Louis Davant: Denetako lehena hori ere.
- ▶ Fagoaga anaiak, Jean eta Paul: Euskaldun saratarrak!
- ▶ Mixel Itzaina: Xintxo-xintxo.
- ▶ Mixel Labeguerie: Euskal Herriko izar bat.
- ▶ Piarres Larzabal: Erraztasun handiko eskualduna.
- ▶ Telesforo Monzon: Eskualdun poeta, bihotz handikoa.
- ▶ Sokorri: Aspaldi zen! Kar, kar, kar...
- ▶ Hamahiru: Ez duk hamahiru!

baina anitz gehiago Hegoaldetik. Hartan naiz ni sartu bertsolarien munduan, eta haiekin ibiliz bertsoan ere bai pixka bat [paper sorta handia erakutsi digu, bertso eta kantu, berak idatzia], beti kantu egiten, eta elizako ere.

Bertsolari txapelketan epaimahaiko izana zara.

Euskaltzaindiak antolatua zuen txapelketa. Baziren hamabi lagun epaimahaiko, eta haietan behar ziren bi Iparraldekoak. Lafitte eta Labeguerie ziren. Baina Labeguerie, orduko, politikan sartzen hasia zen eta ez zitekeen joan. Lafitte, irakasle, autorik ere ez, biak etorri zitzaizkigun niri eta Mixel Itzainari. “Gure lekua behar duzue biek hartu”. Eta epaimahai haietan ibili naiz, denetan. Haiek sarrazazi gaituzte. Guk ez genuen besteen teknika; esperientzia ere ez, doitasuna ere ez... baina behar ziren bi, gutienez, Iparraldeko. Guk ikasi dugu, ibilirik, eta Fernando Artola *Bordari*ekin, Dionisio Amundarainekin, eta Joanito Dorronsororekin...

Apez, laborari, laguntzaile antzerkian eta bertsoan, Herriako zuzendari, idazle, hainbat jenderen izkribuak moldatu dituzuna, euskaltzaina...

Ez dut metodorik ukan sekula, baina beti mundu horretan bizi. Ene esperientzia izan da hori. Euskaltzaindian ere, denetako txarrena naiz, ez dakit teorizatzen. Idazten dudana, xuxen idatziko dut, hori bai. *Bere eta haren*, Iparralde guziaz dena nahasi dute.

Han ere bai, Hegoaldean...

Ez, hangoek ez dakite, baina Iparraldekoak hangoak entzunez nahasi dira! Ez zuten nahasi behar, aski zuten aitaren euskara mintzatzea! Ni egon naiz ukan dudana hartan.

Apez

“Sei apez gara Donibane Garazi gain honetan, hogeita hiru herrirendako. Seiak gara euskaldunak. Gutri-asko herri denetan erraten dugu meza euskaraz. Gutiena, Donibane Garazin. Erran dut zertan diren beti Donapaleu, Ezpeleta, Maule eta Donibane Garazi, euskara guti beti karrika horietan. Hala ere, erran behar dut: badira hirurogei urte apeztu nintzela. Bada, duela hirurogei urte baino gehiago euskara ematen da Donibane Garaziko elizan. Baita Baionako katedralean ere. Hori ez da ukatzen ahal”.

Gauza ttiki batzuk dira, ez du horrek erorarik euskara. Baikor izaten hasia naiz euskararen geroari buruz. Ene adiskide Iratzederrek ere hori zuen erraten Beloken: “Euskara eta fedea”. Baionako apezpikuari ere errana diot aste honetan: “Kasu, ez ote den fedea baino hobeki salbatuko euskara, oraindik ere”. Oraingo egun latz hauetan, ikusten dut fedea arrisku handitan, euskara kasik salbatzen hasia bezala. Baikorrango naiz euskararekin, fedearrekin baino. Ez naiz fededun bezala mintzo, fededun bezala ez baitut dudatu behar, baina erraten dut errealekiaz. Euskal Herrian, bederen.

Ez dakit, bada. Heldu naiz Garazira, eta ez bainekien non zen zure etxe hau, Larrazkena, galdatu dut han, hor eta hemen, eta nehork ez du konprenitu nire “egunon” hitza, postaria salbu...

Emakumea? Jatsukoa da. Eman dezagun, gaizki erori ere zarela. Baina hiru herri, hiru karrika, Donibane Garazi, Ezpeleta, Donapaleu, eta laugarrena Maule, euskara galtzeko arriskuan direnak. Arestian erran dizut fedea arriskuan dela, euskara ari da itzultzen hobeki. Duela zenbait urte ez nuen sinetsiko, ene aitak edo ene anaiak onetsiko ere zutela, geroarendako ofizio bat egiteko euskara hartzea. Eta ene ilobak hartu du. Ene anaiak erraten dit: “Euskara orain ere galtzen ari duk”. Ni ez naiz arras anaiarekin bat. Ene esperientziak erakusten dit, Baionako apezpikuaria ere, saiatzen dela tiraka. *Basque* izenak badu itzal handia, nahi ala ez. Komertzialki, eta populartasunez, eta herriartasunez, badu itzal handia. Hori gauza gogorra da, eta ez da kentzen. Uste ukan dugu galduko zela, baina, ene iduriko, euskara salbatzen ari da. ■

A dramatic photograph showing a group of people in a small, colorful inflatable boat being overwhelmed by a massive, turbulent wave. The water is dark and churning with white foam, creating a sense of danger and chaos. The people in the boat are wearing life jackets and some are wearing face masks. A red banner with white text is superimposed over the scene.

Japoniako katastrofe nuklearra

Mundua aldatzen ari da

• Roberto Díaz Gomar •

«Nazioarteko militantzia utzi nuen, antzezle lanetan zentratzeko»

Antigua Guatemala hiriko bere etxean hartu gaitu, gazte talde batekin antzerki prestakuntzan jardun berrian. Antzerkian Guatemalan hasi bazen ere, gerla zibilarekin Espainiara ihes egin eta bertan bilakatu zen ofizioko aktore. Antzezle konprometitua da Díaz Gomar.

Testua eta argazkiak:

JOANES ETXEBARRIA

Nola sartu zinen aktore lanetan, zine munduan?

Zinemaren afizioa gazte-gaztetik dut, nire gurasoak zinema areto baten jabe baitziren. Ene historia *Cinema paradiso*ren oso antzekoa izan da. Herrira iristen ziren film guztiak ikusten nituen, eta filmak helduentzako zirenean, bagenuen leiho bat lagunekin horiek ere ikusteko, ezkutuan. Cinema Lux izena zuen. Pentsa, garai hartan bi sesio zeuden, goizean eta iluntzean. Horri esker, mundu osoko zinema ikusi nuen.

Eta film horien artean Guatemalakoak ikus zitezkeen ala soilik kanpokoak?

Oso gutxi ziren bertakoak. Baziren batzuk, baina Guatemalako zinema ez zen garatu. Zinema guatemalarraren zati handi bat koprodukzioak ziren, Mexikorekin garatuak, 50 eta 60ko hamarkadetan. 70eko hamarkadan berriz, zinema komertzialaren eztanda izan zen, baina hor ere Mexikoren itzalpean. Gehienetan filmak Guatemalan egin bai, baina zuzendariak eta protagonista nagusiak mexikarrak ziren.

Eta gerla hasi zen.

Bai eta zinema eta antzerkia erreprimitu zituzten, autozentsurarik ez zegoenean. Hortaz gain, larriena zen jendea hiltzen zutela, edo desagertzen zirela, zinema zuzendariak artean.

Gerla garaian ere bazen Guatemalako zinema, baina kanpokoek egindakoa (suediarrek, finlandiarrek...). Horren adibide da *La hija del puma* (1994). Gerla bukatuz zihoala film dokumental asko agertzen hasi ziren,



Guatemalan gertatutako sarraskiak salatzeke. Bake hitzarmena sinatu baino denbora gutxi lehenago, ia hitzarmenarekin batean, bihurgune bat markatu zuen filma egin zen: *El silencio de Nec*. Azken horrek ongi islatzen du guatemalarron izaera isila, itxuraz otzana, garai hartako errepresio horren guztiaren ondorio.

Gerla aitzin ere Guatemalako zinema konprometitua zen ala hori egoera politikoaren ondorio izan zen, gerora?

Ez, aurretik ez zen konprometitua. Nik dakidala, gerla aitzin film bakarra izan zen konprometitua, *La paloma herida* (1963), Emilio *El Indio* Fernandezena, komunitate indigenen borroka islatzen zuena.

Zure ibilbide profesionala nola hasi zen, Cinema Luxen zaletu ondoren?

Nik zinemarekin amesten nuen, eta antzeztzen hasi nintzen, oso-oso gazterik. 4 urterekin parke zentralean antzezlan bat plazaratu genuen. 5 urterekin ere, kantu lehiaketa batera aurkeztu nintzen. Badakizu, haurra gaizki ari denean kanpaia jo eta kanporatzen diren horietakoa... Etxean ez nuen inor abisatu eta horrela azaldu nintzen, Luis Marianok abesten zuen *Violetas imperiales* kantatzera, eta oso abesti zaila zen. Noski, kanpaia jo zuten laster, baina ez nuen mikrofonoa utzi kantua bukatu arte. Eta txalo zaparradak izan ziren, oso egoera komikoa izan zelako.

Erran diguzu gurasoak abisatu gabe joan zine-la. Gerora, zure bizitza artistikoan, sustengatu zaituzte?

Ez asko. Zuzenbide karrera egin behar izan nuen, nahiz eta horrekin batera, antzerkian aritzen nintzen. Hori egin nezakeen, beti ere “etorkizuneko” karrera bat jarraituz, hots, ikasketa “serioak” egiten banituen. Abokatu

“Antzerki taldearekin salaketak egiten genituen, klandestinoki. Argindarraren inguruko gatazka bat, gose greba bat edo beste zegoenean, han agertzen ginen antzerki taldearekin”

eta notario atera nintzen. Espainiara erbestean ihes egin nuenean, bankuetan lana aurkitzen nuen, baina azkenean erabaki nuen aktore lanari osoki dedikatzea. Ez nuen gehiago familiaren presiorik, eta hasi nintzen zirkoa egiten, karrikako antzerkia, haurrentzat ikusgarriak... eta ohartu gabe zinema espainolean sartu nintzen paper txikiekin. Fisikoki espainiar tankera daukadanez, behar izan nuen espainol azen-tuan hitz egiten ikasi, eta horrela hasi nintzen. Izan nintzen laborari, guardia zibila...

Erbestea aipatu duzu. Guatemalan artista konprometitua al zinen modu horretan ihes egin behar izateko?

Bai. Hasteko, zuzenbidean katedratikoa nintzen, inbestigazio sozialen metodoetara dedikatzen nintzen. Lehen masakrea gertatu zenean, nik salatu egin nuen. Paraleloki, antzerki talde bat zuzentzen nuen eta horrekin ere salaketak egiten genituen, hori bai, klandestinoki, ez baiken inongo programetan agertzen. Argindarraren inguruko gatazka bat, gose greba bat edo beste zegoenean, han agertzen ginen antzerki taldearekin.

Espainiako Estatuak babesa errazki ematen ote zien guatemalarrak errefuxiatuei?

1978an erbestea eskatu nuen Espainian, baina ezezkia eman zidaten, Guatemala demokrazia bat zelakoan. Baina 1980an Espainiako enbaxada erre zuten Guatemalan, eta orduan pentsatu nuen “orain zer demokrazia aipatuko didate?” [urte hartan Espainia eta Guatemala arteko harreman diplomatikoak eten ziren]. Enbaxada erre zutenean, han nik formatu nuen antzerki talde bat zegoen, eta partaide guztiak hil ziren. Hori dela-eta, erbestea eman zidaten. Dena den, lagun heriotzaren berri gerora ukan nuen.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Orduan, Espainiak eman zizun askatasuna maila artistikoan?

Hasierako ideia ez zen hori, egia erran. Hara joateko ideia etorri zen han etxe bat zegoelako niretzat. Handik, gerora, Guatemalarekiko europar elkartasun sarea sortu nuen lagun batekin. Baina gogoan genuen Guatemalara itzultzeko, beharbada klandestinoki, borrokatzera... Oso idealistak ginen orduan. 32 bat urte nituen.

Garai hartan itzuli zinen Guatemalara?

Ez, aspertu egin nintzen erakunde iraultzaileekin ukandako harremanetan. Ez ninduten sartzen uzten eta nazioarteko militantzia hura bazter batera utzi nuen, osoki antzezle lanean zentratzeko, eta antzerkia ikasten hasi nintzen. Baina horrek ez du erran nahi nire herriaz eta bere arazoez ahaztu nintzenik.

Antzezlan bat zuzendu nuen, *Herrien behin-betiko auzitegia*, zeinetan Guatemala-ko egoera salatzen genuen. Beraz, militantziarekin ez zen etenik izan, baina aldi berean aktore lanetan ari nintzen, bai publizitatean eta bai edozein filmetan. Nire fisikoak asko lagundu ninduen, esan dudak bezala, espainiar tankera daukadalako. Paper txikietan, baina batzuetan produkzio handietan ere aritu nintzen. Zineman Antonio Banderasekin edo Javier Bardemekin lan egin nuen eta antzerkian Pilar Bardemekin, esaterako. Kontaktu onak lotu nituen, oraindik mantentzen ditudanak.


Eta han Guatemalan baino lan gehiago zegoen orduan...

Pentsa, Espainian finantzaketa gutxi zegoela aipatzen zenean 85 filma egiten ziren. Hemen zer izango ziren, hiru?

Gero Guatemalara itzuli zinen. Lanbideagatik ala beharrune sentimentalak bultzatuta?

1982an itzuli nintzen lehenbizi. 1986an diktadura amaitu zen eta Mexikora joan nintzen, herrira itzultzeko asmoz. Baina esan zidaten oraindik arriskutsua zela eta ez nintzen Guatemalan sartu. Azkenean heldu nintzen eta herria oso aldatua aurkitu nuen. 1998an itzuli nintzen behin betiko, handik ospa egin nuela hogeitaz urte bete zirenean. Maya kulturaren, hogeitaz urteko epea "Katun" bat da, garai bat, ziklo bat. 2003an, kanpoan zinema munduan zebilen jendea itzuli eta bat-batean hiru filma egiten dira. Nik kasualitatez hiruetan hartu nuen parte. Hortik aitzina zinema guatemalarra asko aldatuz joan da, gaur egun *Toque de Queda* generozko filma estreinatzeraino.

Ematen du, zure bizipenak entzunda, Guatemalan xumeki bizitu eta Espainian famatu



AGA CINE

Guatemalako Ikus-entzunezko eta Zinema Elkartearen lehen lehendakaria da Díaz Gomar. Guatemalan zinemaren industria berria da eta diotenez botere publikoek ez diote garrantzi handirik ematen. Elkarre honen bidez, ofizioko hainbat pertsona lanean ari da zinema sustengatuko lukeen legearen alde. Roberto Díaz Gomarrek aurten utziko du lehendakaritza.

bilakatze artean hautu bat egin behar duzula. Hala da?

Nonbait bai, horrelako zerbait izan zen. Baina lurrak erakartzen du, eta askoz gusturago nabil hemen. Orain belaunaldi ezberdinen arteko talde solidoa dugu hemen. Nire etxearen inguruan, Antigua Guatemalan, gazte asko biltzen da eta sorkuntzan gabilta etengabe.

Bukatzeko, Espainiako Estatuan izan zinenean Euskal Herriaren berri ukan zenuen?

Bai, eta erotu ninduen! Guatemalaren antza hartu nion kulturaren. Ez nuen euskara ulertzen, kitxua ulertzen ez dudak bezala. Baina gustatzen zait entzutea, eta oso pozik naiz hizkuntza horiek egon badirelako. Baina Euskal Herria ez da erraza; bazoaz Sevillara eta hiru orenean etxekoa bezala sentitu zaitezke, Euskal Herrian ez. Baina lagun euskaldun bat ukanez gero, lagun hori betirako da.

Gainera zinemarekin eta antzerkiarekin aritu naiz euskal taula gainean. Donostiako festibalean ere aurkeztu ditugu gure filmak behin baino gehiagotan. ■



Euskal Herria aldatzen ari da

TTAKUN (H)ERRENKA

Gutarrismotik kamikazismora eta buelta

E

uskal Herria dugu, Euskal Harria baita ere, Euskal-tel, Euskal Pizza, Euskal Bideo, Euskal Kebab... Baina

MARC CAMPÀ

Euskal Bihotzik ez, antza. Ezagutzen dut proposamen bat baino gehiago –*Kaixo, Hola-xe...*– buruan duenik, baina momentuz egitasmoak baino ez dira. Euskal Brangelina, Euskal Belen Esteban eta enparauei buruz ariko litzatekeen aldizkari edo dena delakoa dugula faltan, alegia. Halakotan *besteren* kontuekin asetzen da norberaren morbo beharra, eta akaso, Uxuek iradokitzen zuen gisara, euskaldunok gure artean ezin halakorik egin, gure *besteak* urrutiago daudelako beti. Euskal Herritik kanpo baino ezin ditugu *besteak* aurkitu ahal, eta horregatik ezin gure famatuen inguruko txutxu-mutxuka ibili, publikoki bederen. Bortitzegia litzateke.

Esana dut hemen bertan eta ez dut kontuaren gainean sobera tematu nahi, baina nabaria da atzerriko artista kaskar baten lepotik trufatzea naturala eta kasik osasuntsua dela, eta gure arteko bati buruz gauza bera egitea –arrazoiak berdin-berdinak izanik ere– ordea, gauza lohi eta laineza. Gutarrismoaren autokontsumora-ko joera-edo.

Ez dugu laidoztatzeko sortu den figura publikorik, beraz, bai ordea *souvenir* dendetan saltzeko moduko hamaika pertsonaia sinboliko eta mitifikatu. Ezbairik gabe, beharrezko dira mitoak. Gorrotagarriak dira sasi guztien gainetik ibiltzen diren pertsona inpartzial, hotz, ultrarrazional, ultrailustratu eta handiusteak, (ustez) mito oro mespretxatzen dutenak. Bai, gutarron arteko gutarrismo goragutagutarra bezain gorrotagarria. Mitoak behar ditugu, egia da, baina ahal dela kafeina gabeak eta sakarinarekin, arren. Eta horixe da, hain justu, pop kulturaren ezauzarrietako bat: mitoak sortzen



Beñat Sarasola

Apaolaza

Padrón

ditu baina seriookiegi hartu gabe. Erabili ostean zakarretara botatzeko moduko mito merkeak. Hamazazpi urterekin Morriseyren kamiseta eramanez, hogeita birekin Morrisey madarikatu eta berrogeita bostekin haren itzulera-kontzertu batera joan zaitezke bion tripatzarraren tamaina erkatzera. Horregatik, ez dakit Euskal Bihotza dugun faltan, baina bai behintzat Euskal Popa, askok adierazi izan duten bezala.


Honakoa dut denboraldi honetako azkeneko ttakuna. Aurtengoari so azkarra egin eta erraz ohartu naiz dexente izan direla buruz eta kaskorik gabe sartu naizen nahaspila, istilu eta abarrak. Lokatz-nahastetatik matatzetara ibili naizela maiz. Hain zuzen, ziur aski, *besteak* gutarron artean bilatzen ahalegintzearen. Horren ondoriozko kalteak ere ez dira makalak izan: lau ezker *crochet*, eskuineko bi, bost *uppercut*, orotara zazpi zuzeneko ukaldi... kanpaiak salbatu nau anitzetan. Maite omen naute nek esan didate badela garaia kamikazismo eta mohikanokeria honi amaiera emateko. Uzteko baratzaren buztina eta joateko lorategiko lili, arrosa eta mitxoletetara. Uzteko gizon-kontu hauek eta hasteko behingoz literatura egiten. Ez dakit jabetzen diren askoz ere okerrago izan

daitekeela hori, baina haatik, behingoagatik, jaramon egiten ahaleginduko naiz. Gainera, egungo literaturako joeretako bat han-hemenkako norberaren testuak –hitzaldiak, zutabeak...– nobeletan berrerabiltzekoa da. J. M. Coetzee eta Enrique Vila-Matasek egin izan dute halakorik. Bada, nire xumea gauza bera egiten saiatuko naiz hurrengo denboraldian. Literatura egiten. Balizko nobela batean berrerabiltzeko moduko ttakunak idazten. Aurreratuko dizuet: Uxue izango da hiltzailea eta Jose Luis, berriz, detektibea. ■

« Esana dut hemen bertan eta ez dut kontuaren gainean sobera tematu nahi, baina nabaria da atzerriko artista kaskar baten lepotik trufatzea naturala eta kasik osasuntsua dela, eta gure arteko bati buruz gauza bera egitea –arrazoiak berdin-berdinak izanik ere– ordea, gauza lohi eta laineza. Gutarrismoaren autokontsumorako joera-edo »

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Ad ignorantiam falazia

Demostra ezazu Jainkorik ez dagoela! Hau izan da erlijiozaleek erabili duten argumentua, jainkoaren izatearen alde egiteko. –Zuk ezin duzuneko demonstratu jainkorik ez dela, orduan, nik diot badela–. Boterearekin bat zeudenez, gainera, hizkuntza ere pentsamolde horren menpe jarri zuten, *a-teo* deituz –jainkorik-gabea– aurka zeudenei, eurek, *cum-teo* zirela onartu beharrean. Erabat lasai geratzen ziren hori adierazi eta gero (ateoak ez, ordea, erre egiten baitzituzten), egiaren jabe zirelakoan.

Argumentu iruzurti honi “ad ignorantiam” falazia deritzo, eta batxilergoko ikasleek erraz atzematen duten kontzeptua da, erraza baita agerian uztea, edozer baieztatu daitekeela, edozeren izatea onartu, aurkako ezin ezeztatu daitekeela argudiatuz.

Eta erantzuna argia da, nik ez daukat jainkorik –edo beste ezer– ez dagoela demonstratu beharrik; aitzitik, zuk demonstratu behar duzu badagoela, baina horretarako ezin duzu aurkakoaren demostraezintasuna erabili.

Egoera praktikoetara jaitsiaz, argumentu honen erabilerak juridikoki badu konkretzioa, errugabetasun-presuntzio edo, deritzona. Honen muina zera da, inork ez daukala demonstratu beharrik leporatzen zaiona ez duela egin, eta, oster, akusatzaileak, demonstratu behar duela norbaiti egozten diona.



DANI BLANCO



Nik ez daukat
jainkorik ez dagoela
demonstratu beharrik;
aitzitik, zuk
demonstratu behar duzu
badagoela, baina
horretarako ezin duzu
aurkakoaren
demostraezintasuna
erabili



Joan zen astean, Bateragune kasuaren epaiketan, Estatua babesten duen fiskalak, Arnaldo eta besteek ETArekin menpe zeudela baieztatzeke, haxe zioen, hain zuzen ere –gaztelaraz, noski–: “Ez dagoela dokumenturik, ez daturik, hauek antolatutako operazio politikoan ETA ez dagoela adierazten duenik”. Eta erabat lasai geratu zen hori adierazi eta gero (besteak ez, ordea, kartzelan baitaude), egiaren jabe delakoan.

Fiskal honek batxilergoa egin duela ziurta daitekeenez, era trakets honetan jokatzeko bi arrazoi daudela otutzen zait: edo ezin izan du demonstratu egotzitakoa (eta hau agerian geratu da abokatuei esker), eta horregatik, ezgaitasunez, jo du falazia erabiltzera, edo, txarragoa dena, ez du ikusi egotzitakoa demonstratu beharrik, eta falazia erabili du, diskurtso zentzugabe eta hutsal bat betetzeko, azkenean, aurrez idatzitako helburua, kartzela eskaera, babesteko.

Batak ala besteak adierazten dute fiskal honen jokajeraren maltzurkeria larria. Hau prebarikazioa ez bada, zer da, orduan? (“Justiziarekin erlazioa duten langileek, maleziak beren karguak dituen eskakizunei uko egitean edo hauek behar bezala ez betetzean datza delitua” dio Harluxet-ek).

Ea, bada, guztiak aske uzten dituzten, ordua da eta. ■

TXANDAN

Joxerra Garzia



Dominique Strauss-Kahn da bere grazia. 2007tik oraintsu arte Nazioarteko Diru Funtsaren zuzendari izan denez, aspaldiko lagun ditu dirua eta boterea. Alderdi sozialistako kide, neoliberalismorik basatiena aplikatu zuen, horrek krisi globala eragin zuen arte. Karguan jarraitu zuen, hala ere, eta neoliberalismoak eragindako gaitza neoliberalismo gehiagorik sendatu behar dela agindu.

Gainbehera edo, maiatzaren 14an hasi zen, poliziak atxilotu zuenean, New Yorken, hoteleko langile bati sexu eraso egin izana leporatuta. Ez

Koherentzia

da giltzapean luzaroan egon: berehala aurkitu dituzte zantzuak, salatzailea fidagarria ez dela frogatzen omen dutenak. Hedabideek gustura egin dute hortik aurrerakoa, omen behar lukeen lekuan *amen* jarritz.

Jakina: salatzailea besteak beste emakume, beltz, etorkin eta pobre izateak ez du horrekin zerikusirik.

Hori bai, maila publikoaren eta pribatuaren arteko koherentzia ezin zaio DSKri ukatu, batean bezala bestean ere ahulenak izorratzea baita bere jardunaren funtsa.

Ederra curriculum, Frantziako sozialismoa biziberritzeko! ■



ARGIAk kontatuko dizu

Informazioz blai astero!

Harpidetza egizu

Harpidetza egiozu

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Kirola eta txukuntasuna

J oan den maiatzaren 29an Londresko Wembley futbol-zelaian Bartzelonak Manchesterri Txapeldunen Ligako finala irabazi zion. Une berean gaztelaniak menpean hartu zuen euskara. Eraitsi egin zuen, makurrarazi.

Finala batera eta antzeko baliabideekin eskaini zuten TVE1ek eta ETBko lehen kateak. Euskal Autonomi Erkidegoan audientzia datuak honakoak izan ziren: gaztelaniazko emanaldiak %54ko sharea, euskarazkoak %4,9koa. Ratinga, emanaldia zenbatek ikusi zuten alegia, 30.000 bat lagunek "gure" hizkuntzan. Gaztelaniaz zenbatek ikusi zuten zeuek atera kontuak, niri lotsaren lotsaz matrailak gorritzen zaizkit eta! Hori EAEn; Nafarroa eta Iparraldekoen berririk ez dut, baina ez dut uste itxaropen ikaragarria pizteko moduko datuak izan zirenik.

Abertzaletasunak gehiengo zabala duen herri honetan, komunikabideen jokoan ia beti atzeritarrak dira nagusi. Probintzialismo kiratsa darien egunkariak irakurtzen ditugu, eta prentsa arrosa aukeratzen dugu gure tristurak besteen faltsukeriarekin estaltzeko.

Zerbait oker egiten ari gara. Egia da beti dantzan dabilen hizkuntza dela gurea, baina arau nagusiak aspaldi finkatu ziren eta dagoeneko ez luke arrotza behar inorentzat. Aitortu ere egin behar da bertako



DANI BLANCO

komunikabideetan gure ahotsa jartzen dugun batzuk oso ahalegin txikia egin dugula azken urteotan gure hizkuntza-maila egoera berrietara egokitzeko, eta beste hizkuntza batean barkaezinak lirakeen akatsak geure buruari errazegi barkatzen dizkiogula. Eta jakina, hizkuntza etengabe mugitzen ari bada, baina gu geldirik bagaude, inoiz ezin izango gara bere parean ibili. Fin ari direnek gehiengo osatu arren arduragabeek erabat estaltzen dute hauen ahalegina.

Ezagutzen ditudan komunikabide gehienetan euskara zerbitzuek lan egokia egiten dute, baina kazetariak egunero bere ahalegintxo egiten ez badu jai dugu. Horrexek bihurtzen du barkaezinagoa zabarkerian ari denaren jarrera.

Bestalde, jakin berri dut hainbat euskaltzale komunikabideotan gertatzen ari denaz kezkatutik, gogotsu ari direla, elkarrizketatua euskalduna denean, gaztelaniaz elkarrizketarik ez egitearen aldeko kanpainan. Kontuan hartzekoa, zalantzarik gabe. Eta bitartean guk Xala edo Gonzalez Iparraldeko pilotariei, esate baterako, euskaraz eta gaztelaniaz galdetzen diegu. Galanta da, beraiena ez den hizkuntza derrigorrez ezagutu behar balute bezala!

Lana non egin bada, gogoia izanez gero. Ni hasteko prest nago. ■

Txapeldunen Ligako finala eskaini zuten TVE1ek eta ETBko lehen kateak. EAEn audientzia datuak honokoak izan ziren: gaztelaniazko emanaldiak %54ko sharea, euskarazkoak %4,9koa

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



gauzak errazten. Orain urte batzuk, guk geuk muntatu kanpamentua genuen ostatu, koadrilako arotzek landu burdinazko egitura azkarrek haizete bortitzenetan ere zutik irauteko adina fundamentua bazutelarik. Erreka genuen bainu eta aska. Asteko artikulua eskuz idatzi eta beheko herriko postara joko genuen faxez igortzera. Orain gure seme-alabei sekulakoa iruditzen bazaie ere, orduan telefonoz hitz egiteko ere kabina publikoak zeuden herrietara jotzen genuen natural-natural. Ez genituen gureak erretransmititzen, konplikatu egia zen. Gaur, txaletetik ikusten ditugu bakandu-

Ez dizkizute

tako kanpalariak. Ez dituzte guk genituen egiturak, ez dute koadrilarik, ez dute arotzik. Arinago eta askeago dabilta munduetatik, autonomoagoak dira, sos gutxiagorekin eremu zabalagoak korritzeko gauza dira. Zakutan daramate eguneko prentsa, herrietako kabina eta posta. Ez dute boligrafo beharrik. Nik ere garaian garaikoa izan nahi izaten dut. Portatila daramat. Artikulua airez bidali nahi izaten dut. Movistarrek Orangeria igortzen nau, honek gogoak ematen dionean egiten dit zerbitzu *oberbuki-na* omen dago aire honetan, ez dit kasurik egiten. Sake-lakoaz errezitatu beharko diot erredakzioari hau, heldu den astean argitaratua nahi baldin badut ikusi. ■

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Interekonomiari jarriak



I

Nork ez darabil sekreturen bat
kontzientzian sigi-saga?
Nik behintzat zerbait isildu nahian
daramat azken bolada,
baina lehertzeaz nago
ta ezin dut gehiago!
Aitortzea libre bada,
egantxatuta nago zeharo
Interekonomiara.

II

Gato al Agua, zenbat maitasun
Euskal Herriaganako!
“*Bildu* da ETA, dena da ETA”
hori esan eta planto.
Zeu ere Patxi Lopez,
harrotzen jardun ordeaz,
laster zara hoientzako
traidore soil bat, hiru-lau berba
euskaraz dakizulako.

III

Ondoren dator *Punto Pelota*
gixonkeriaz beterik,
kirola baino zerbait gehiago
dela esango nuke nik:
maite dute fubola,
gorroto Guardiola,
zeren hor dabiltzanetik,
jokoa eraman nahi dute soilik
eskuineko hegaletik.

IV

Aitortu dute homosexualak
gorrotatzen dituztela,
eta tratatu behar direla
gaixo baleude bezela.
Kondoia Afrikara
bidaltzeaz nago,
ta izorra daitezela...
Okerrena da dioten baino
gogorrangoak direla.

V

Beren ahotik entzun daiteke
hitz adina disparate,
printzipioak gorbatak bezain
estuan daramatzate.
Eskuindar, falangista,
elizkoi ta matxista,
denek hartzen dute parte.
Francok burua altxako balu
harro egongo litzake.

VI

Pantaila ertzetik zezen txikiak
ozen bota du marruma,
gorbataz janzen diren gizonek
astakeria bilduma.
Nahiz eta amorrarazi,
ta urduritzen hasi,
izan gogoan laguna,
zezen guztiei heltzen zaiela
beren San Fermin eguna.

DOINUA: Iparragirre abila dela.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Marino Goñi

«Mugimendu ikaragarria ekarriko du krisiak gazteen musikan»

Musikarekin estu lotuta egon da umetatik, baina ez zioten erakutsi musika lanbide bihurtu zitekeenik. Hala, autodidakta sutsua izanda, Euskal Herriko diskogintzaren aita pontekotzat har dezakegu, gure soinu banda osatzen duten taldeetako asko deskubritu eta 2011 arte musikaren tendentzia guztietara egokitzen jakin duelako.

IKER BARANDIARAN

Argazkiak: Dani Blanco



Noiz txunditu zintuen musikak lehenengoz?

1961ean. 10 urte nituela Burlatako Eslava zineman Iruñeko Los Permans taldea ikusi nuen, gitarra elektrikoekin! Niretzat rockaren hasiera zen, ordura artekoarekin apurtzen zuena.

Zeren bila jo zenuen Madrilera?

Jose Mari anaia Radio Madriden zegoen, Joaquín Luquirekin. Irratiak eta musikak asko erakartzen ninduten eta Irudia eta Soinua ikastera jo nuen. Anaiak irratan sartu ninduen eta nire eskola izan zen. Gonzalo García Pelayo, Julio Ruiz, Montxo Alpuente, Juan de Pablos, Juan Claudio Cifuentes... ezagutu nituen. Iruñeko 20 urteko gazte batentzat ikaragarria zen! García Pelayok, Andaluziako rockaren aitapontekoak, erakutsi zidan teknika garrantzitsua bazen ere, sentimenduak garrantzia zuela eta sentimendua azaleratu behar zela. Mundua ikusteko modua aldatu zidan: garrantzitsuena ez da ondo jotzea.

Madrilgo urteak politikoki oso biziak izan ziren...

Bai, 1971-1974 artean hiria Franco-ren kontra zegoen eta gazteok akra-

tak edo hippyak ginen, baina aurretik Iruñean 1968ko maiatza bizitakoa nintzen, grisen aurretik korrika eta panfletoak banatzen.

Ikasketak bukatu eta Euskal Herrira buelta.

Madril txarrera aldatuz zihoan eta susmoa nuen hemen gauza aberatsak biziko nituela. Iruñeko Cope katera aldatu eta 1977ko irailan Nafarroara itzuli nintzen.

Eta irratiaz gain, idazten hasi zinen...

Bai. *La Tubería* irratsaioa egin nuen, 1978an *Más o menos rock* bihurtu zena. *Egin*-en idazten hasi nintzen: disko kritikak, elkarrizketak... 1978an Sex Pistols-i buruzko artikulu bat idatzi nuen, baina *Eginek* ez zuen argitaratu. Ezkerretik punka oso gaizki ikusten zuten. *Egin* utzi eta *Muskaria*-n idazten hasi nintzen.

Eta Iruñeko musika eszena ezagutarazten hasi zineten.

Kantautoreak eta musika politikoa ziren nagusi, baina nahiago genuen talde berriak aditzera ematea eta irratitik kontzertuak antolatzen hasi nintzen: El Drogas-en lehenengo taldea izan zen Kafar Naun, Josetxo Bitxoren Tension, Tubos de Plata, Tocamas...

Zuk ere taldea sortu zenuen, ezta?

Madriren jazz musikariekin kafe-antzerkia egiten aritua nintzen, baina ez zuen funtzionatu. Baina Iruñean, punkaren eta new wave-aren eztandarekin jotzen jakin gabe musika egin zitekeenez, Ful eta Mol sortu genuen: 1980ra arte iraun zuen.

Gero, Soñuan lanean hasi, eta folk ildoan alboratu zenuten.

Jota eta bestelako estilo ugari grabatu ostean, Nafarroa azpizigilua sortzea proposatu nuen. La Pollaren singlearekin hasi, eta atzetik etorri ziren Barricada, Hertzainak, Kortatu, Cicatriz, Jotakie... Barricadarenak izugarriko arrakasta izan zuen eta Nafarroa Soñua jan zuen. Ez genuen Madriren grabatzen. Hango grabazio estudioetan ez zituzten hemengo taldeak ondo zaintzen; eta, gainera, Madrilgo *mobidan* ez zegoen rock indartsurik.

Zein izan zen Oihukaren arrakastaren gakoa? Konpetentzia falta? Musika taldeen karisma?

Soñuaren ekonomia ondo kudeatzen jakin ez eta lan egiteko iritzi kontrajarriak sortu ziren. Azkenean Soñua Elkarri saldu, eta nik Oihu-

"Belaunaldi berriak eta zaharrak aurrez aurre jartzen baditugu, ni printzipioengatik beti gazteen alde egongo naiz"

ka sortu nuen Elkarrentzat. Elkarren askatasun osoa nuen, arriskatzeko aukera. 80ko hamarkadako taldeek karisma handia zuten, Espainian ez zegoen halako talde interesgarriarik, Madrilgo *mobida* penagarria zen... Gainera, gure diskoak urbanoak izan arren, landa ingurunean ere ongietorriak ziren.

Zer onura eta zer traba ekarri ditu Euskal Rock Erradikalak?

Onura handia: azpiegitura, musika eta instrumentuei buruzko ezagutza, kontzertu aretoak, grabazio estudioak; eta gure herria ezagutzera eman duen musika estiloa. Bestalde, estereotipo bat ezarri da: musika estilo bat pentsaera mota batekin lotua.

Zer esango zenieke gaur egun iraganeko pareko talderik sortzen ez dela diotenei?

Ohikoa da. 25 urte arte kultura eta musika berria xurgatzen aritzen gara; eta hortik aurrera ez gara hain adi egoten. Hala ere, egia da 2000ko hamarkadan taldeak kalkatzeko eta irudiari gehiegizko garrantzia emateko joera handiegia izan zela; irudia berez sortu behar da. Karisma eta maila handiko taldeak sortzen dira, baina jendea ez da ikustera joaten. Hirugarren diskoa atera arte ez dute arreta jartzen eta gero harritzen dira: horra hor, Ken Zazpi, Kerobia, Zea Mays...

Hortaz, baikorra zara? Sortuko diren taldeek harrera hobea izango dute?

Bai. Krisiak ondorio garrantzitsuak ekarriko ditu. Krisi hau oso gogorra da eta gazteen musika mugimendu ikaragarria ekarriko du.

Ez dakit rap, reggaeton edo zer izango den, baina ziur oso errebindikatiboa izango dela. Mugimendu indartsuak oharkabea etortzen dira, inork espero ez dituen.

Baina kontzertu batean arrakasta lortzeko betiko talde handiek baino ez dute balio.

Txosna, jai batzorde eta bestelakoek beti ezagunak diren taldeak kontratatzen dituzte eta ez diegu aukerarik uzten berriei ezagutzera emateko. Belaunaldi berri eta zaharrak aurrez aurre jartzen baditugu, ni printzipioengatik beti gazteen alde egongo naiz.

Zeintzuk dira diskogintzan izandako poztasun handienak?

Asko. Tijuana, Potato, Hemendik Atl, Skalariak, Urtz, Marea, Huajolotes, Ken Zazpi, Koma, Berri Txarrak... Potatoren *Rula* abes-



Hiru hamarkada baino gehiago pasa ditu Marino Goñik diskogintzan eta hala ere argi du: egun diskoetxeen eginkizuna betiko bera da, nahiz eta egiturari eusteko irabaziak ateratzea geroz eta zailagoa izan.

tia Peruko irratietan lehenengo postuan egon zen! Bestalde, pena dut S.A.-ren maketa ez nuelako entzun; eta Extremoduro La Polla-ren antzekoa iruditu zitzaidalako.

Gor diskoetxeak oso begi ona izan du taldeak deskubritzeko; baina, zailtasun handiagoa izan du taldeei eusten...

Gor Goñi anaiok sortu genuen 1991n. Gurekin beste hainbat diskoetxe jaio ziren, baina talde interesgarri asko zeuden eta azkarrek izan ginen: Urtz, Exkixu, Parabellum... deskubritu genituen eta gastuak murrizteko diskoen banaketa egiten hasi ginen. Bestalde, ez dut sinesten taldeak eta diskoetxeak betiko ezkondata egotea; hori multinazionaletatik dator. Gainera, askotan lehenengo diskoak onenak izaten dira.

Aspaldi euskarazko pop taldeak sortu beharra errebindikatzen zenuen. Ken Zazpik bete du hutsune hori?

"Karisma eta maila handiko taldeak sortzen dira, baina jendea ez da ikustera joaten. Hirugarren diskoa atera arte ez dute arreta jartzen eta gero harritzen dira"

Bai, baita Kerobiak ere. Gure musikaren normalizaziorako irratietan hemengo punk eta rock kañeroaz gain, beste zerbait ere erakutsi behar zen. Ezin genuen jarraitu kanpoan Itoiz poparen adibide gisa aipatzen.

Hemendik At!-ekin egindako apustua ere polemikoa izan zen...

Bai. Taldeak oihartzun izugarria izan zuen. Euskaraz ez zegoen halakorik, eta *intelligentsia*-k begi txarrez hartu zuen. Antzinako garaietan bezala, kantautoreek batera instrumentu yankee bat zela ziotenean. Gazteek oso ondo hartu zuten, eta nik gazteekiko errespetu handia dut, ni ere erabat teenager-a nintzelako. Halako erronkak maite ditut: Huajolotes, Lendakaris...

Sasoi batean Gaztea irratia eta, orokorrean, irati-formula defendatu zenituen...

Azkeneko aldaketa egin zuten arte. Euskarazko pop-a ezagutzera emateko irati baten beharra dago, eta sasoi batean Euskadi Gazteak funtzio hori bete zuen. Badira hori gabe ezagutuko ez genituzkeenak: EH Sukarra, Pog Mo Thon, triki-pop taldeak... Baina, gerora, baldintzak asko mugatu dituzte. Gaur egun euskarazko irati-formula batean ezinbestez Izate entzun beharko litzateke, eta ez da horrela.

Zer behar dute Euskal Herriko taldeek esportagarriak izateko?

Badira dagoeneko. Berri Txarrak, El Columpio Asesino, THC, Lendakaris, Marea, Barricada, Mermaid, Lisabö, Anari, NCC, Betagarri... Garrantzitsuenak da nortasunari eustea. Eta euskara plusa da. Ez saiatu beste batek egiten duena bere hizkuntzan kopiatzen.

Askok diote musika librea dela.

Norbaitek kanta bat idatzi eta berea dela egiaztatu nahi badu, eskubide osoa du. Gainera, musikaren komertzioak musikarenganako interesa gehitzen du. Baina ez ditut SGA Eren metodoak onartzen.

Zein da gaur egun diskoetxe baten eginkizuna?

Betikoa, teknologiak ekarri dituen aldaketekin: talde berrien masterrak merkaturatzen laguntzea. Baina gero eta zailagoa da egiturari eusteko irabaziak ateratzea. Autoekoizpenak gorantz doaz, baina autoekoiztea gogorra da, lan handia eskatzen du. Diskoetxeek taldeari lana arintzen diote. ■

Larrun

www.argia.com/larrun



DROGAK Debekuaren gakoak

Erreportajea Gezur farmakologikoak eta interes ilunak
Elkarrizketa Fermin Castiella, Nafarroako Droga-mendekotasun Planaren zuzendaria
Iritzia Debekuaren politika, estatu-krimena ♦ Pedro Quesada



Datorren astean

Udako ipuina

Bidaiari txepelaren gida

Zilarrezko ezteiak ospatu behar dituzte Miriamen eta Txentek. “Normala” zera litzateke: biek elkarrekin norabait bidaiatzea. Ez dute hori egingo ordea. Tira, Txentek bai, baina bakarrik abiatuko da Erromarantz. Horra Xabier Mendigurenen *Il viaggiatore pusillanime* ipuina nondik nora abiatzen den. Datorren astean jasoko duzue opari, ARGIArekin.

GORKA BEREZIARTUA

“BIDAIAZEA aberatsen kapritxo izatetik guztiz orokorra izatera nola igaro den ikusi dut” azaldu du Mendigurenek ipuinaz galdezka hurbildu gatzazkionean. “Normaltasuna”-rekin topo egin dugu ostera ere. Bikote “normalen” ohi-tura “normala” bihurtu baita, “normal” ezkondu, “normaltasunez” 25 urte elkarrekin pasa eta “normala den bezala” ospatzeko, bidaia “normal” bat egitea elkarrekin. Ados, ez gara ospinduko lehen paragrafoan: hau ez da lekuri egokiena ezkontzaz uste duguna esateko eta bidaiatzea ez da berez txarra, baditu alde positiboak ere (“noski, ez naiz begien bistakoa esplikatzeko hasiko” diosku Mendigurenek); eta, baietz, ia denok joango garela uda honetan gertuagoko ala urrutia-goko lekuren batera baina... “Baina asko du ergelkeriatik eta presio sozialetik ere”. Eskerrik asko Xabier, gu ez ginen esaldia hain borobil esatera ausartuko.

Kontuak kontu: idazleak berak egindako bidaia batetik dator ipuina. Joan den abenduan Italiako hiriburuan egun batzuk pasa ostean iritsi zitzaion ARGIAkoon deia, aurtengo Udako Ipuina idatz zezala eskatuz; eta, Erromako egunak buruan fresko zituenez, han kokatutako istorioa harilkatzeari ekin zion. Txenteren ibilerak turismoari eta bidaiatzeari buruzko gogoetekin tartekatzen dira *Il viaggiatore pusillanime*. “Beti gustatu izan zaizkit gogoeta eta gertakariak uztar-



Topikoekin jolas egiten du ipuinak, “ohiko bikote baten ohiko krisia eta tribulazioak” kontatzeko asmorik gabe, ezta Erromaren alderdi erromantikoa esplotatzeko ere

tzen asmatzen duten kontalaria; 80ko hamarkadan asko irakurtzen genuen Kundera; joan den hamarkadan Houellebecq... Ez dut horien pare jarri nahi, baina ipuin honetarako bururatu zitzaidan interesgarria zatekeela paraleloki eramatea saio antzeko hausnarketa bat, eta horrekin nola baiteko zerikusia duen kontakizuna”.

Topikoekin jolas egiten du ipuinak, “ohiko bikote baten ohiko krisia eta tribulazioak” kontatzeko asmorik gabe, ezta Erromaren alderdi erromantikoa esplotatzeko ere. Ironia geruza sotilarekin narratu ditu Mendigurenek Txenteren beldurak, deserosotasunak, etxezulokeriak. Baina Mendigurenek uste du (eta guk ere bai) denok daukagula barnean Txente bezalako pertsonaia “txepela”, portzentaje diferentetan bada ere: “Batek egunean bost minutuz, beste batek 20 orduz”.

Baiki, guztiok gara Txente, problema txikienekin itotzen den inozente koitadu pobre hori. Denok esaten dugu noizbait “bertan goxo”, denok saiatzen gara batzuetan ahalik eta arriskurik txikiena hartzen,

denok desiratu izan dugu puntu batera iritsita, guztiak berdin jarrai zezala. Baina orduan zerbait pasatzen da; demagun, Txenteri bezala, kartera lapurtzen dizutela. Txikieria izan liteke, ala katastrofe handiagoren abiapuntua. Hori deskubritzea ordea, irakurleon esku utziko dugu. ■

ANA ZAMBRANO

PAGOAREN ZUR ZOLDA		ZERRALDO TOKI HORRETAN		AFALDU ADITZAREN INFINITIBOA	 GOTZON ELIZBURU	... EGIN, OSPA EGIN LISKAR		URTEAREN SEIGARREN HIL DUELA ASKO		ONETIK ATERA, ASALDATU ANAIKI	
KIROL MOTA						ERRANA EUSKAL JEINUA					
PERTSONAIA -REN IZENA											
KILOA ... ETA ZAZTI		ELTXOA ZULUEN HIZKUNTZA			BAI ZERA! GIPUZKOAK O LURMUTU- RRA	PERTSONAIA- REN ABIZENA ... SILVEIRA, BERTSOLARIA		NAFARROAK O HERRIA ALE-NEURRI		ADIA, AUHENA MORDO, TALDE	
SOLASBIDE	EMAKUME IZENA ERASO			ZATITXO USAINDU		TXIMELETA- LARBA BITARTEA					IRRINTZIA
							AZAL MEHEGIA IKERKETA LAN				
LUTE- ZIOAREN SINBOLOA BURUTAZIOA		NIRE BIHURTU PAUSALDI (ALDERAN- TIZIZ)						OIHU, HOTS SABELEKO ORBAIN			
URTEBETEKO TXAHAL MERKATARI, TRATUGILE					ARRANTZA- APARAILUA 40 ERROMA- TAR ERARA		HAURRAK, UMEAK ROENTGEN			NITROGE- NOA LANDA, SALBU	
								LATORRIZKO ONTZIA			

P	H					I	E	E
Z	A	H	I	A		A	H	A
G	O	R	K	A		E	S	A
K	U	L	I	T	X	A	A	N
Z	I	Z	I	T	X	A	A	I
			U	X	E	B	E	L
S	O	L	A	S	G	A	I	M
I	L	E		N	I	T	E	N
A	R	A	T	X	E	S	E	L
T	R	A	T					

Liburuak

KRITIKA

Joan da negua.
Mikel Ibarguren.
Susa.
90 orrialde. 13,50 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Aresti eta Zea Mays

Negua igaro dela gaztigatzen digute Gabriel Arestik eta Zea Mays taldekoek poema liburua zabaltu eta berehala. Halako haize epel bat sartzen da orduan, iratzarri egiten da poetaren kontzientzia: “gure birrikak esnatu berri dira/ barrunbe suminduotan/ ahanzturaren periferietan”. Lerrook irakurrikeran berritu egin zait *Deserriko karrikak* (Susa, 2002) irakurri nueneko sentipena: idazkera lehorra eta kiribil bakoa da Ibargurenena, hausnarketarako joera handia dauka, absentiaren gaiaren zapore mikatza dakar, eta mekanika bat ia-ia antipoetikoa.


Isiltasunak, minbiziak eta hasieraren zein amaieraren gai eternoek gurutzatzen dute *Joan da negua*. Idazleak berak esana da arrangurei eta sentipen gordinenei jarri dizkiela hitzak, baina tonu baikorrean. Alegia, berak bizi izan duen “barruko negu hori” joan dela, eta horren aldarri litzatekeela liburua.

Ez dakit. Mingostasuna ezagutu duenaren tristezia kontagiatzen du liburua —batzuetan liluratu ere bai—, baina orokorrean huts egiten du, nire ustez. Ez dauka zintzotasunarekin zerikusirik —zeina esan barik doan—, baizik eta sinesgarritasunarekin. Artifizial xamarra bihurtzen du irakurketa irudien doitasun faltak: “ez da inor ageri argiaren haraindian/ ebakuatu egin dituzte begiradak/ begiak husteko abisua eman ostean”. Liburuko lehen zati moteleko pasarte honen antzekoek liburutik “irten arazi” egin naute sarri. Hitzen nahaste arraroek —begiradak ebakuatu—, subjekturik ezak, erreduantziak... hustasun sententzia eragin didate, kontrakoa eragin beharrean.

Joan da neguan usnatzen diren baikortasun malenkoniatsua edo baretutako ezkortasuna erretorikan galtzen dira, finean. “Ez dakit zure periferiara/ trenik etortzen den paisaiak ekartzera” edo “taupaden denbora minerala” eta antzeko sinestesiekin liburuaren funtsa den bizitzaren poesiatik urruntzen da idazkera. Egunerokotik beldur unibertsalei zentzua aurkitzen ahalegin du diren autoreak asko izan dira, baina lortu dutenak gutxi batzuk bakarrik. Buruarekin baino areago bihotzarekin idazten ahalegin du direnak iritsi dira hizkuntzaren muga horietara, eta beharbada Ibargurenen falta izan zaio zerbait polito esateko berba iradokitzaileak beste leku batzuetan ere bilatzea. Subkontzienteari kasu gehiago egiten dieten zoroak arrisku handia hartzen dute, baina eurek gutxienez, noizean behin, aurkitzen dute diskurtsoa. *Joan da neguan*, hori bai hori, egon badagoen eta barrunta daitekeen emozioa hitzek eurek hozten dute maiz. ■

Manuel Iturrioren gerrako bizipenak

Orexan jaio zen Manuel Iturrioz. Morroi eta artzain ibili zen gaztetan eta itxura guztien arabera, bizi osoa nekazaritza munduari lotuta pasatzekoa zen, Diputazioko ezagun batek bultzatuta mikelere sartu zen arte. Gerra aurreko eta gerra hasierako urteak ziren eta Donostian harrapatu zuen giro korapilatsu horrek Iturrioz. Milizianoekin elkartu eta



Borrokari baten bizipenak.
Joxemari Iturrioz.
Alberdania.
238 orr. 20,50 euro.

Euskal Herrian 36ko Gerran izan ziren guda gehienetan parte hartu zuen, baita Ebrokobataila handian ere. Gero, II. Mundu Gerrak ere harrapatu zuen. Urte haiez egin zuen kontakizuna da orain Joxemari Iturriozek, moldatuta eta dokumentazioa gehituta, Alberdaniaren eskutik argitaratu duena. ■

Lisboatik Zuberoara, Zubizarretaren eskutik

Lisboako uztail amaiera, Mariok gauerdian dei bat jaso du, frantsesez hitz egiten dion emakume bat, esanez João anaia gaztea Santa Grazin larri dagoela. Zer egin erabaki beharko du Mariok. Burua lehertzear dauka, eztabaida sutsua izango du bikotekidearekin, antza ez dute oso harreman ona izan Mariok eta Joãok. Baina, Carla Caeiroren hitzok, nobelari hasiera ematen diotenak, argitzen dute Marioren bidea: “Erabakiak guk hartzen ditugulako ilusioa bizi dugu baina, izan, damuak baldintzatutako patuaren iruzur baino ez dira”. Lisboatik Zuberoarainoko bidaia eskaini du Patxi Zubizarretak *Joan* nobelan, Joserra Senperenaren musikak lagunduta. ■



Joan.
Patxi Zubizarreta.
Txalaparta.
283 orrialde.
22 euro (liburua + CDa).

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Autokritika eta amorrazioaren dosi melodikoak



CC627.
CC627.
Autoekoizpena.
Iraupena: 10'08".
3 euro.

HONAKO TALDEA bi oñatiarrek eta arrasatear batek osatzen dute eta bi herriak elkartzen dituen errepidearen berbera da izena. Bailara horretan hain presente dagoen punk tradizioetik abiatuta eta ezer asmatu gabe, lortu dute nolabaiteko freskotasuna eta originaltasuna. Horretarako, oso erregistro desberdineko bi ahotsekin melodia lantzen saiatu dira; eta, horrez gain, hitzei garrantzi handia eman diete, gazteei (auto)kritika handia eginez, eta

euskara zein gaztelania erabilita. Nabaria da Ingalaterrako 77ko punka eta NCCren gisako taldeak gustuko dituztela, baita Oi!-a ere, Fiachrasen tankerako ildo malenkoniatsua baztertu gabe. Lan honetako lau kantetatik dagoeneko *Mundu zoragarria* hit! oso berezia da, eta ziur jada prestatzen dabiltzan lan berrian izango direla sorpresa gehiago.

www.myspace.com/cc-627

CC627

«Punka gezur handi bihurtu da; galdu egin du esentzia, esanahia»

Azpiegitura erraldoien sasoian, bigarren mailako errepideak dira gelditzen zaigun esparru natural bakarra?

Bai. Azpiegitura erraldoiek infernuko bidera eramango gaituzte. Lotsagarriak dira aurrerapenaren izenean egin nahi dituzten proiektu izugarri guztiak. Bigarren mailako errepideetan oraindik autostop egiten duen jendea ikus daiteke, hori zoragarria da.

"Ignorantziaren yonkeeak, gazte jubila-tuak...". Anger taldeak *Biluztu* kaleratu zuenetik ez dut ia benetako disko kritikorik entzun. Zorionak!

Kritika beharrezkoa da. Badirudi gazteei kosta egiten zaiela sare soziale-tatik desengantxatu eta kaleko giroan murgiltzea. Autokritika ere beharrezkoa da, guk ere sistema kapitalista barruan dugulako.

Musikak dagoeneko ezer gutxi alda dezake eta are gutxiago probokatu. Hitzekin bada aukerarik?

Hitzek izugarrizko garrantzia dute. Guk ezingo genuke musika instrumentalik egin. Gure armarik onena ironia da. Gizartea hain da ergela, ironia erabili eta berehala haserretzen dela; hor dago hitzen boterea.

Euskal Herriko punk eta Oi!-ak alda dezake zerbait?

Norberak bere proiektuetan bihotzez sinesten badu gauzak alda daitezke. Punkaren edo Oi-aren arazorik handiena da fotokopia gehiegi daudela, norberaren nortasuna atera beharrean. Punka gezur handi bihurtu da. Ez dakigu zer den punka, baina bai zer ez den: asteburuetan egundoko kalimotxoak edan, andre zaharrak iraindu eta gazte-txeak birrintzea. Horrela jokatzeko duen jendearen ondorioz, punkak galdu egin du bere esanahia, zeukan esentzia.

Fiachras eta Bizardunak pareko folka da salbazioa?

Gustuko dugu baina ez dugu salbaziotzat ikusten. Rock-and-rollaren salbazioa berriz hutsetik hastea izango litzateke, mito eta tontokeria larre-gi baitaude. Adibidez, BBK Live-n bankeroek rock-and-rola subentzionatzen dute. ■



Ezpalak

JON TORNER

"Zaharrei gorazarre" egingo die Getxophotok



IRAILAREN 1ETIK 30ERA BITARTEAN egingo da Getxophoto nazioarteko argazkilaritza jaialdiaren 5. edizioa, *Zaharrei gorazarre* lelopean. “Gaur egun, gaztetasuna goستن den garai honetan, zaharra izatea ez da egokia. Zaharrak garela onartzea, etengabe mugimenduan dagoen gizartetik baztertua da”, adierazi du Jokin Aspuru jaialdiko zuzendariak: “Bosgarren urtea dugu, nagusi egiten gara gu ere eta aurrez aurre begiratu nahi diogu heldutasun edo zahartzaro horri”. Hogei argazkilarik inguruk parte hartuko dute aurtengo edizioan, tartean Andrew Zuckerman, Sacha Goldberger eta Peter Granserrek. Goian, Goldbergerren *Super Mamika* argazkia.

Kultur ondarea ikertu eta sustatuko du Zain Fundazioak

ZAIN FUNDAZIOA Eusko Jaurlaritzak, EHUK eta Gasteizko Udalak sortu dute “kultur ondarea ikertu eta sustatzeko” helburuarekin. Epe motzean Arabako Foru Alduandiak eta Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiak ere parte hartzea espero dute. Zain zentroa 2013an irekiko dute, Gasteizko Maturana Berastegi jauregian. Bertako zuzendari Agustin Azkaratek azaldu duenez, ikerkuntza eta berrikuntza proiektuak sustatuz ezagutza, teknologia eta jarduera ekonomiko berriak bultzatu nahi dituzte. Horretarako graduondoko programak eta lanean ari diren profesionalak trebatzeko ikastaroak burutuko dituzte. Erakunde publikoek sortu duten arren, ekonomikoki ez da horien menpe egongo, autofinantzatu egingo baita.

Gotzon Elortza getxoztarraren hiru dokumental zaharberitu ditu Euskadiko Filmategiak: *Aberria* (1961), *Ereagatik Matxitxakora* (1960) eta *Elburua Gernika* (1962) filmak Donostiako Zinemaldian proiektatuko dituzte, Zinemiran. Joxean Fernandez Filmategiko zuzendariak azaldu duen moduan, Elortzaren filmak “euskaraz pentsatuak eta ekoitziak izan ziren lehen dokumentalak” dira.

Peio Cachena gidoilari eta zuzendariak astelehen hasi zituen *Xora* zubererazko lehendabiziko filmaren grabazio lanak. Hiru astean grabaketak bukatzea espero dute, eta datorren urteko udaberrian filma estreinatzea. Jef Goihenepe eta Tittika Rekalt dira aktore nagusiak. Goiheneperen pertsonaia Zuberoan bizi den euskaldunberri gaztea da, bere bizilekuan euskara desagertuta egonik, urteak eman ditu euskara ikasten. Irakaslea da, baina idazle izatearekin amesten du. Amets hori bete asmoz, aholku bila joko du bere osabarengana, hark 30 urte inguru baitaramatza AEBetan gidoilari eta idazle lanetan. Bien arteko harremana indartuz eta estutuz doan heinean, beltzez jantzitako gizon bat agertuko da, eta istorioaren norabidea aldatuko du haren presentziak.

Paul Delvaux

margolari belgikarraren (1897-1994) ehundik gora obra bildu dituzte Miarritzeko Bellevueko erakusketa aretoan. *Obraren iturburuan* izenburuean, margolariaren ibilbide artistikoa ikusgai izango da urriaren 2ra arte. Surrealista gisa da ezaguna belgikarra eta Renoir, Modigliani, Magritte, Ingres eta beste hainbat pintore garaikideren eragina izan zuen. Horretaz jabetzeko, artista horien obrak ere jarri dituzte erakusketan, Delvauxen lanen ondoan.



Araba Bertsozale proiektua sortu du Bertsozale Elkartek, Arabako bertsolaritza bultzatzea eta kultur eta gizarte eragileei bertsolaritza ekimen dinamiko, parte-hartzaile eta herrikoia dela erakustea xede duen ekimena. Bertsolaritzarekin lotuta Araban egiten diren ekintza guztiak bilduko ditu eta bertso-saioak antolatzeaz gain, tailerrak ere egingo dituzte, besteak beste.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

MIKEL ASURMENDI

Nafar mirailaren pieza-puska anitzak

Musika ibilaldia Nafarroan barna.

Interpretatzailea: Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak.

NAFARROAN BARNAKO MUSIKA IBILALDIA egitera gonbidatu nahi zaitut. Ziur ez naizela pertsona egokiena gonbite hau egiteko. Bizitzaren harat-honatekoek ematen dizkiguten ustekabeek ausartak bihurtzen gaituzte ordea. Horratx zoria!

Fermin Erbiti idazlearengana hurbildu nintzen Iruñera, eta Nafarroako Comptos Ganbera ezagutzea izan zen nire lehen ustekabea, eta Ferminen eskutik ezagutzea zoria. Hori gutxi bailitzan, opari honekin etxeratu nintzen: *Musika ibilaldia Nafarroan barna*. Halaxe du grazia CDak. Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak joa da. Nafarroako musikaren pieza puska bitxiak biltzen ditu. XIII. mendetik eta XX. mendera arteko 21 kanta, *comptoa* zehatz eginda.

CDari buruzko bi zertzelada eskaini aitzin, azal dezadan zer den Nafarroako Comptos Ganbera: “Espainiako Estatuko kontu epaitegirik zaharrena da. Karlos II. nafar erregeak sortu zuen 1365ean Erresumaren egoera ekonomiko latza konpontzeko asmoz. XIX. mendean Nafarroako Erresuma espainiar probintzia bihurtu zen. Comptos Ganbera galdu zuen, hainbat eskumenekin batera. 1836ko dekretu batek erakundea desagerrarazi zuen. Comptos Ganbera 140 urte baino gehiago itxita egon zen. 1980an Nafarroako Parlamentuak erakundea berriro martxan jartzeko erabakia hartu zuen”.

Pieza bitxiak direla aipatu dut. Bai horixe. Lehen kantak *Goizean diru kontatzen* izena du. Baraibarkoa da, XVIII. mendekoa. Comptos Ganberari kontu eta kantu egiten dizkio: “Goizean diru kontatzen, / arratserako gastatzen, / bazkari ona jotzen, / kafea



Nafarroako Comptos Ganbera.

hartuz, / kopak edanez, / edari finak garbitzen, / Egnik ez dut ukatzen, / Orain ezpainak nekatzen, / sardin ederrez betetzen”. Honela kantatzen du Kaperak, Aurelio Sagaseta zuzendariaren batutapean. Kantarik zaharrena, Teobaldo I.a erregearen *Seigneurs, Sachiez* da; 1239 urtekoa. Berrienak, berriz, XX. mendekoak dira, Fernando Remacha, Pascual Aldabe eta Emiliana Zubeldia musikagileenak.

Nafarroaren aniztasunaren isla da diskoa. Comptos Ganberaren 25. urteurrena kari obratua. Kantetako bost euskaraz dira, lau latinez, hiru gaztelaniaz, bat frantsesez, gainerakoak instrumentalak.

Baraibarko *Nere maitiaren* hitzok atxiki ditugu buruan guk: “Nere maitia, ez egon sustoz, / biziko gera munduan gustoz, / palazio bat eginen dugu / sekalez edo lastoz, / balkona ere basalizarrez, / teilatua belar izarrez, / hala, goizean enkargatu da / Baionako Pierres”.

Kantaren hotsa –doinua– zure kontu, akort? ■



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

E-postaren, webaren eta USB giltzen erabilera “berdeagoa” izateko aholkuak

FRANTZIAKO ADEMAK (Ingurumenaren eta Energiaren Kontrolerako Agentziak) interesgarriak iruditu zaizkigun aholkuak eman berri ditu, informatikako tresnen erabilerrari dagokionez. Egun, teknologia berrien erabilerragatik Europan egiten berotegi-gasen emisioak %2 dira gutxienez, eta esponentzialki hazten ari dira. Beraz, hain libreki erabiltzen ditugun e-postek, webek eta abarrek gero eta erantzukizun handiagoa dute gure Lurraren berokuntzan. Hona hemen, bada, hainbat aholku sistema informatikoen erabilera ahalik eta garbiena izateko.

2009an munduan 250.000 milioi e-posta bidali ziren eta 2013an 500.000 milioi izango dira. Alor honetan aholkatzen dena:

Behar diren mezuak baino ez bidali. 100 pertsonako enpresa batean mezuen kopurua %10 murriztuz, urtero tona bat gutxiago CO₂ emitituko litzateke.

Behar diren mezuak baino ez gorde. Zerbitzari handiek munduko energia elektrikoaren %1 kontsumitzen dute eta emititzen duten gas kantitatea nazioarteko aireko trafikoaren adinakoa da.

Ez inprimatu ordenagailuan hamar edo hamabost minutuan irakurri ditzakezun mezuak, eta inprimatzekotan, zuri-beltzean eta orrialde bikoi-tzean egin.

Web-konsultetarako ere bada aholkurik:

Bilaketetan ahalik eta zehatzenak izan, horrela orri eta zerbitzari gutxiago kontsultatu eta lanean jarriko dira.

“Faboritoak” erabili edota zuzenean jo edo idatzi topatu nahi den web-helbidea.

Ahalik eta gehien luzatu ordenagailuaren bizitza. Hau da, ez aldatu urtero.

USB giltzen erabilera ere izugarri areagotu da azken urteotan. Adibidez, gero eta enpresa gehiagok egiten du publizitatea USB bidez. Erabili USBak beharrezkoa den kasuetan, katalogo astunen kasuan edo oso informazio pertsonalizatuen kasuan. Adibidez: 100 orriko txostena pasatzeko onena e-posta da, eta berori irakurtzeko pantailan baino hobe da bi orrialdetan eta zuri-beltzean inprimatzea.



Ura -130°C-tan jariatzea lortu dute

Denok dakigu ura solido, likido edo gas izan daitekeela, eta egoera horien mugak 0°C eta 100°C direla; lehenak solidoa eta likidoa bereizten ditu, eta bigarrenak likidoa eta gasa. Orain, Suediako zientzialari batzuek ura -130°C-tan jariatzea lortu dute, ohikoa baino 10.000 aldiz handiagoa den presioa ezarrita. <http://ttiki.com/30250> (gaztelaniaz)

Zirkuitu elektronikoki biziak

Elektronikako zirkuituak erakitzeko silizioa eta antzeko materialak erabili ohi dira. Baina jakin badakigu gure gorputzek ere elektrizitatea garraia dezaketela; hortaz, zientzialariek aurrerapenak lortu dituzte bakterioetan oinarritutako zirkuitu elektronikoekin. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko kasu hau adibide. <http://ttiki.com/30251> (gaztelaniaz)

Atlantis espazio-ontziaren azken bidaia

AEBetako Kennedy espazio-zentroetik abiatu zen, uztailaren 8an, Atlantis espazio-ontzia azken aldiz. Hamabi egun geroago lur hartu zuenean, NASAk 40 urteko zikloa itxi zuen espazio-ontzi berrerabilgarrien alorrean. <http://ttiki.com/30256> (frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usaina buruan

JULIETARI ESKEAN JOAN ZITZAION Romeo gizajoa, mingranondo (*Punica granatum*) baten abaroan saldu zigun Shakespearek; jakingo zuen, bai, idazleak landare honek ugalkortasunari egiten dion mesedea...

Beste saltzaile batek, landare saltzaile batek, "William Shakespeare" izena jarri zion berak patentatutako landare bati. Arrosa batek du izen hori. David Austin bere egileak. Mundu osoan ezaguna den muintegi bat du eta landare berrien sorkuntzan garai bateko arrosen estiloa lantzen du, batik bat.

Idazle handiaren izena daraman arrosa beste bi arrosen arteko nahasketa edo hibridaziotik sortua da, "The Squire" eta "Mary Rose" ditu guraso. 1987an jaio zen eta harrez gero makina bat izkina bereganatuak ditu, baratzetan, bihotzetan, lore sortetan, sudurretan... Arrosa modernoa izateko lurrin gozo izugarria du, arrosa zaharretan ospetsuena zen Damaskoko arrosa mitikoaren usaina duela diote adituek.

Gaur egun haxe da landare berrietan topatzen zailena zaigun ezaugarria, usaina. Kolore nahasketa erakargarriak, lore handiak, forma ikusgarriak eta begietarako soilik pentsatzen duen gizarte honek barra-barra erosiko dituen landareak besterik ez

dituzte buruan sortzaile-saltzaileek.

Usaimenaz gain beste zentzumenak ere biltzeko asmoa bazuen kaskoan "William Shakespeare" arrosa berri honen egileak. Ikusmenerako, korola bikoitzeko petaloak gorriminetik abiatu eta gorriindol edo purpurara mudatzen dira; gorri-min bizi edo ilunetan dotoreena dela diote. Uki-menerako, belusezko petaloak ditu. Dastatzeko aukearik ez dut izan, hurrengo batean esango dizut...

Gaitzei aurre egiteko ikaragarritzko kemena duen arrosa da hau eta, beraz, gure isuri atlantikoko lurretarako aproposa. Ikusi nahi duenak, bere izena daraman idazle sonatuaren jaiotetxera hurbildu besterik ez du, Ingalaterrako Stratford-upon-Avoneko Henley kalera, hantxe dago arrosa honen sail eder bat. Sortzaile-saltzaileak jarria. Ez dakit, publizitatea, propaganda, ala biak.



VICTORIA SAVIDGE

"William Shakespeare" arrosaren ale bat.



WWW.BARCELONAPHOTOBLOG.COM

12 eta 13

Euskaraz apartak diren hamaika eta hamalau zenbakien arteko beste biok gereziak, *Prunus avium*, airtzeko aitzakia emango didate.

$11 + 1 = 12$. Hamabina gramoko pisua zuten gerezi aleak jan ditut oraintxe, marka ikaragarria. Besterik gabe tamaina kontuan hartuta, azken urte hauetan egin diren selekzioetatik sortutako gerezi pikor bakoitzak zazpi eta bederatzi gramo arteko pisua izan ohi du. Aurten hamabikoak, hurrengo urtean? Mamiak soilik du garrantzia eta laster hezurrik gabeko gereziak izango ditugu. Erne eta zaindu eperra!

$14 - 1 = 13$. Martxoaren hamahiruan atera ditu aurten mundu osoko lehen gereziak Kataluniako Lleida S.A.T. Edoan enpresak. Patente berezi baten eta Almacellesen dituen negutegien abaroan beste inor baino azkarrago merkaturatzeko gai da eta aberastu egiten da. Iaz Londresko Harrods merkataritza gune sonatuan kiloa 113 euroren truke saltzen zen. Aurten lehen kiloa eBay etxearen bidez enkantean atera eta 1.040 euro ordaindu da. Hara!

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ingelesen hilerritik zerura

MADRIL, 1605EKO UZTAILA. Espainiako Filipe III.a erregeak merkataritza ituna sinatu zuen Erresuma Batuekin eta, itun horretan, besteak beste, Ibaizabal itsasadarrean, La Salve parean zegoen “Zazpi Zuhaitzen” uhartean, “ingelesen kanposantua” egitea adostu zuten, oztopo erlijiosoak medio. Izan ere, Bizkaiko kostaldetik hurbil edo Bilboko portuan bertan hildako protestanteak chorzteko ezin ziren hilerri katolikoak erabili. Britainiar uharteekiko harreman ekonomikoak sendotu ahala, geroz eta britainiar gehiago biltzen eta hiltzen ziren Bilbo inguruan eta, beraz, geroz eta gehiago erabili zuten hilerria. Horrenbestez, egun Abandoibarra izenez ezagun dugun eremuari “Ingelesen zelaia” esan zitzaion luzaroan.

Urteak joan ahala, itsasadarren uraldiek eremua hondatuta utzi zuten. Mr. Young kontsularen eskaerari erantzunez, hiriak lurzoraren jabetza Britainiar Kontsulatuari utzi zion, eta eremua berrekitzen hasi ziren. Berriro ere hilerri modura erabiltzen hasi ziren, Renfek 1888an handik hurbil inauguratu zuen geralekuak eman zion bultzadaz lagunduta.

Itsasadarreko kaiak hazi eta zabaldu zirenean, hilerria lekualdatzea nahitaezko bihurtu zen, baina



Bilboko Iberdrola Dorrea eraiki duten eremua britainiarren hilerri izan zen, 1605ean Filipe III.a Espainiako erregeak hala agindu zuenetik.

ren ekintzak abiatu zituzten, eta, lan horien ikur, 165 metroko Iberdrola Dorrea eraiki dute ingelesen hilerriaren gainean.

afera korapilatsua izan zen. Lehenik Bilboko Udalak, eta, ondoren, Portuko Lan Batzordeak berak, britainiarrei hilerria lekuz aldatzeko eskatu zieten, baina ezezkoa jaso zuten biek. Azkenean, 1908an, Espainiako Alfontso XII.ak Errege Agindu bat eman behar izan zuen, britainiarrek amore eman zezaten.

Hilerria lekualdatuta, Abandoibarrako ibar zabala Bilboko haurren futbol zelaia izan zen; hantxe jokatu zuen gero futboleko izar izango zen Rafael Moreno “Pichi-chi”k. Olabeagako Acero Club delakoaren egoitza, Manuel Zubiaga hegazkinlariaren lurreratze pista eta, 1928an, Krone eta Karl Hegenberg zirkoen kokaleku ere izan zen “Ingelesen zelaia”.

40ko hamarkadan, Deustura daraman zubitik jaisteko arrapala eraiki baino lehen, Bilbo inguruko beste hainbat toki bezala, lurzoru zati hori txabolek hartu zuten. 60ko hamarkadan langileentzat etxebizitza asko egin arren, txabolak ez ziren Abandoibaretik desagertu, Renfeko salgaien terminal bihurtu zen arte. Azkenik, 90eko hamarkadan, hirigintza erreforma-

Arrastoak

Adolphe Saxek klarinetea hobetu nahi zuen

ADOLPHE SAX (1814-1894) musikari belgikarrak flauta eta klarinetea jotzen ikasi zuen Bruselan. Klarinetearen tinbrea eta soinu kalitatea hobetu nahirik, hainbat eredu asmatu zituen, 1846an gustukoen zuena patentatu zuen arte. Bere abizenean oinarrituta, saxofoi

deitu zion. Hala ere, tresna berriari ez zioten orduan harrera beroegirik egin. Egia da Berliozek eta Debussyk beren obretan sartzea erabaki zutela. Baina jazz musikari modernoak izan ziren Saxen klarinete okerrari ospea eman ziotenak.



TOM OATES



Leire Beteta
Ingurumen teknikaria

«Pasaia-ko kanpo kaiaren proiekturik ez da existitzen»

Leire Betetak kanpo aholkulari gisa dihardu orain Lezon. Pasaia-ko kanpo kaiatz galdezka joan gatzazkio eta politikariei entzun ez dizkiegun argibideak eman dizkigu.

Testua eta argazkiak:

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Arrabots handia entzuten da Pasaia-ko kanpo kaia dela eta. Zertan da proiektua?

Proiektua deitu diozu, baina berez ez da proiekturik existitzen. Gaur egun dagoena plan bat da, Portu Agintaritzak nahitaez egin behar duena, Azpiegituren Gida-plana deitzen dena. Horren baitan, portuak nondik joko duen, zer nolako azpiegiturak beharko dituen eta

bere ekonomia zein izango den zehaztu behar ditu Agintaritzak. Hor aipatzen da kanpo kaia, Gida-plan horren barruan. Alegia, kanpo kaiatz agertu duten bakarra marrazkiak dira, diseinuak, gida-plan horren barruko proposamena besterik ez da.

Portuko Agintaritzak gida-plan horren ingurumen azterketa tramitatzen ari da orain Madrilén. Azter-

keta horren harira heldu da, hain justu, Espainiako Ministerioak egin duen txostena, Gida-plan horrekin, eta zehazki kanpoko kaiaren ideiarekin, hain gogor azaldu dena. Ministerioak arazo larriak ikusten dizkio kanpo kaiari, eta ez dira bakarrak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak ere zalantzan jarri zuen, ingurumenaren gaineko inpaktua gogorregia izateaz gainera, ekonomikoki

bideragarria izateko ere nahikoa froga ikusten ez diolako.

Txostenean alternatibak aztertzea eskatzen da, esate baterako, gaurko kaiari arreta jartzea eta hobetzea, eta Agintaritzak hori ez du ezertarako kontuan hartu.

Nork du azken hitza afera honetan?

Espainiako Ingurumen Ministerioak jasanezina dela esaten badu, bertan behera geldituko litzateke. Baina orain ez dira kanpo kaia tramitatzen ari, baizik eta Azpiegituren Gida-plana. Beraz, Ingurumen Ministerioak plan horren gaineko epaia emango dio, eta aldaketek ere, horren gainekoak izan beharko dute. Zerk ez du Ministerioaren azterketa pasatzen? Kanpo kaiak. Beraz, ideia hori aldatu egin beharko du, eta alternatibak aztertu, dela barruko kaia berritzea, dela Lezoko plataforma logistikoa, dela Bilboko kaiarekin lankidetzatza... Baina noizbait onartu egin beharko da plana, modu batera edo bestera, Portuko Agintaritzak ezin baitu plan hori gabe aurrera egin.

Zein epe dute?

Agintaritzak eta Ministerioa elkarrekin lanean ari dira orain. Ingurumen Memoria atera behar dute aurrera, legeak ezartzen duen beste tramitazio bat. Memoria hori aurrera atera dadin, alegazio guztiei erantzun behar die Agintaritzak, eta, kontuan hartu milaka izan zirela, gehienak kanpo kaiaren kontrakoak. Memoria horrek, Agintaritzak Ingurumen Iraunkortasunaren txostena nola egin duen aztertuko du, eta zeintzuk diren ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuenak. Azkenik, Gida-planean aldatu beharrekoak ere jasoko ditu. Luze joko du.

Ministerioak ikerketa zorrotzak eskatu zizkien, besteak beste, kanpo kai horrek itsasoko habitat ezberdinetan izango lukeen eraginaz, edo trafikoak zetazeoei sortuko liekeen eragozpenez eta antzekoez. Horri guztiari erantzutea ez da batere erraza.

Barruko kaiaren hobetzea ere aztertu beharra daukate...

Horixe da niretzat interesgarriena. Azken finean, gaurko egoera ez du inortxok ere nahi, hemen bizi gare-

nok ere ez. Badakigu bizi kalitatea txarra dela, baina egia da, halaber, inongo konturik ere ez dela hartzen. Portua eta hiria bateraezinak direla esaten zaigu, baina ez dira sekula saiatu. Hor lan handia dago egiteko.

"Ingurumenean inpaktu handia izan lezakeen ezer onartzeko, justifikazioa bilatu behar zaio. Bertakoen iritzia oso kontuan hartzekoa da"

Ingurumen Ministerioak eskutatako alternatiben artean, hori ere badago, hain zuzen ere, gaurko portua hobetzea, inguruko hiriekin bateragarria izateko. Hortaz, behar bezala egin beharko dute azterketa.

Zer diozu barruko berritzeaz?

Posible dela iruditzen zait. Portu askotan aplikatzen dira ingurumen praktika egokiak. Akaso, aproba eginda, beste tokietan ikusten ez diren eragozpenak sortuko dira, ez dakit, baina aproba hori behinik behin egin beharko da.

Bestalde, portuaren funtzionamenduaz ere zalantza handia dago. Portuak karga-deskargarako guneak dira izatez, eta horrek ematen du dirua. Hemen besterik ikusiko duzu, eta zenbakiak ere halaxe frogatzen dute, portu hau hainbat enpresen biltegi gisa erabiltzen dela. Txatarra eta antzekoak deskargatu eta hilabeteak ematen dituzte bertan, eta praktika horietxek dira, justuki, arazoak sortzen dituztenak, txatarra-meta erraldoi horiek, batere estali gabe, batere bildu gabe. Hor dauden bitartean askatzen duten hautsa herrigunera eramaten du haizeak.

"Dei diezaiotela nahi duten bezala, baina hori eremu natural batean eremu industrial bat sartu nahi izatea da"

Karga-deskarga sistemak ere batek daki noizkoak diren, ez zaie inongo neurririk ezarri eragiten duten kaltea ekiditeko... Nola justifi-

fikatzen duzu desastre hori kanpora ateratzea? Eta bitxia da, zeren Azpiegituren gida-plan horretan aipatzen denez, kaia kanpora ateratzen denean, orduan bai, orduan izugarritzko neurri pila hartuko dute kontuan... Tira, eta zergatik ez dira gaurdanik hasten?

Udalek ez dute horretan ahalmenik?

Agintaritzak administrazio kontseilua du. Bertan, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Sustapen Ministerioa, sindikatuak eta udalak daude. Beraz, erabakiguneetan badute boza eta zeresana. Jakina, gauzak asko aldatzen dira segun eta zein indar politikok agintzen duen.

Bestalde, Agintaritzak kudeatzen du portua, baina lurra udalerriarenak dira eta udalek ere badituzte hor eskumenak. Portuan dauden enpresak udalaren baimena behar dute jarduteko. Eta ez dakit zergatik, behar bada portuari ez zaiolako interesatzen baimen horren berri zabaltzea, baina nik esango nuke enpresa gehienek ez dutela udal lizentziarik. Inoiz udala joan izan zaienean ezikusiarrena egin dute, edota portuko kontzesioarekin aski dela argudiatu. Tristeia da, baina lizentzia horiek kudeatzen ez badira, ezin dira neurri zuzentzaileak ezarri.

Zer izorratuko luke Kanpo kaiak?

Kaia kanpoan eraikitzeke, ez omen dute mendia ikutuko. Hori ezinezkoa da. Tira, tunela besterik ez, diote. Baina azaldu beharko dute plataforma eta gainerakoak nola egingo dituzten mendia ikutu gabe... Magiaz? Itsas labarrei itsasitako azpiegitura eraikitzea planteatzen da. Jaizkibel mendia Europak babestutako eremua da, baina hori ez omen dute ikutuko. Zero metrotik gora hasten da babes, gaur egun. Plataforma hori, itsasoak irentsiko ez badu, hortik gora eraiki beharko dute, mendi gainean, alegia.

Horrez gain, itsas labarretara hurbildu den edozeinek daki itsas labarrak oso eremu dinamikoak direla, higadura etengabekoa dela, landareak hazten direla, harriak erortzen direla... Beraz, ezpada horri eutsi egin beharko zaio, plataforma hondatzea nahi ez bada. Ez dutela mendi hori ikutuko? Askotxo esatea da.



“Portua eta hiria bateraezinak direla esaten zaigu, baina ez dira inoiz saiatu. Hor lan handia dago egiteko. Portu askotan aplikatzen dira ingurumen praktika egokiak”.

Itsas labarra, bestalde, izenak ondo dioen bezala, itsasoari lotutako eremua da, aurrean 100 hektareako plataforma ezartzen badiozu, esango didazu itsasoarekiko erlazio hori non gelditzen den. Itsas hondoi dagokionez, plataformak beteko duen eremu horretako bizitza desagertu egingo da.

Jaizkibelgo itsasertza euskal kostaldeko eremu birjin luzeena eta handiena da (15 kilometro). Belatzek edo saizuriek bezala, babestuta dauden hegazti harrapakari askok bertan egingen dituzte habiak, hor ez baita erasorik, ez inpakturik, ez eraikinik... Baldintzak aldatuta, aberastasun hori desagertu egingo litzateke. Hori guztia, eraikuntza lanekin bakarrik.

Gero, aktibitateak berak dakarren zarata, kutsadura. Dei deiezaiotela nahi duten bezala, baina hori eremu natural batean eremu industrial sartu nahi izatea da. Bestalde, dieselak, petrolioak, tankeak, mota horretako merkantziak ekarri nahi dituzte. Denok dakigu horien garraioak zer arrisku dakarren.

Zer izan beharko luke Jaizkibel mendiak eta zer babes izan beharko luke zonaldeak?

Jaizkibel mendia Europako Natura 2000 Sarearen baitan dago 2004 urteaz geroztik eta horri dagokion

kudeaketa plana eduki behar du. Dokumentua idatzita dago, parte-hartze prozesua ere izan zuen, egin zitzaizkion ekarpenak handik eta hemendik, baina oraindik ez da onartu. Prozesu hori geldirik dago.

Zer esan nahi du horrek, babesik gabe segitzen duela?

Ez. Horri esker ez da kanpo kaia aurrera atera, ezta aterako ere ziurrenik, eremu babestua delako.

Natura 2000 Sareak, gunea babestea ez ezik, hobetzea ere badu helburu. Kudeaketa planak esaten du Jaizkibelen zein espezie diren esanguratsuak, zein habitatek behar duen zainketa berezia, non egin behar den aparteko ahalegina. Zeren, Jaizkibelek, ezer edukitzekoan, interes potentzial handia du. Landaretzari dagokionez, pinudi asko dago, baina bertako zuhaitzak ere berreskura daitezke, adibidez ametza. Eta horretarako ekintza-plan egokia behar da. Tamalez, Eusko Jaurlaritzako tiraderaren batean dago gordeta dokumentua.

Ez du iraungitze-datarik?

Berez, iazko abendurako onartuta behar zuen. Hori zen Europak finkatutako epea, 6 urtekoa. Parte-hartze prozesua ere iaz egin zen, baina dokumentua oraindik ez da erakus-

keta publikora atera. Horixe baita protokoloa, onartu baino lehen, alegazioak egiteko aukera dago. Gero, denboraldi bat eman behar da ekarpenak jaso, erantzun eta onartzeko.

Europak ez al du estutzen?

Normalki marjina ematen du. Jaizkibelgoa ez da kasu bakarra. Dena den, aterako ez balitz, Europara jo eta han kexa azaltzeko aukera dago.

Zer eragin izan dezake hemengo biztanleen kexak?

Garrantzi handia du. Ingurumenean inpaktu handia izan lezakeen ezer onartzeko, justifikazioa bilatu behar zaio. Bertakoen iritzia oso kontuan hartzekoa da, ez baita berdin inpaktu handia izango duen horren beharra mundu guztiak sentitzen duenean, bertako elkarteak ere ados daudenean.

Zergatik dute Jaizkibel-Uliak zero mailarainoko babesa? Zergatik ez da itsasoa ere kontuan hartu?

Lapurdikoko kostako zona babestuek bi eremuak hartzen dituzte kontuan, lurarrak eta itsastarrak dira, ez dago zero mailako banaketarik, zeren ekologiararen ikuspegitik, zatiezina da, marearteko eremua deritzo horri. Jaizkibelen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen hitzetan, itsasoko eremua ez zuten Natura 2000 Sarean sartu garai horretan ez zegoelako itsasoari buruzko informaziorik. Datu faltagatik egin zen horrela. Egun, ordea, gero eta informazio gehiago dago, eta badakigu Jaizkibel-Uliako itsas eremuak baduela nahikoa balore Natura 2000 Sarean sartzeko. ■

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Mundubat

Ehun proiektu berdintasunaren eta garapenaren alde

Mundubat Gobernu Kanpoko Erakundeak 11 milioi euro inguru kudeatu zituen guztira 2010ean nazioarteko lankidetzaren proiektuetan. Afrika, Latinoamerika eta Ekialde Hurbileko hainbat herrialdetan dihardu fundazioak.

DANIEL UDALAITZ

MUNDUBAT FUNDAZIOA Gobernu Kanpoko Erakundeak Bilbon du egoitza nagusia. 2010ean 10.776.386 euro kudeatu zituen, hain zuzen ekonomia eta finantza krisia momentu zailenean denean. Baliabide ekonomiko horiek Afrika, Latinoamerika eta Ekialde Hurbileko hainbat eskualde behartsuetako garapenaren alde erabili dira. Berrikitan plazaratu du Mundubat-ek bere azken memoria eta bertantxe ikus daiteke munduan barrena egon duten lana.

Genero-berdintasuna

Mundubat 1988. urtean Paz y Tercer Mundo-Hirugarren Mundua eta Bakea izenez sortutako euskal Fundazioa da. GKE laiko eta independentea da, hainbat errealitate soziale-tatik datozen eta mundu-ordenaren aldaketarako konpromisoa hartu duten gizon-emakumeek osatutakoa. Iñaki Markiegi da Fundazioaren presidente, eta Jose Angel Cuerda Ohorezko Patroi.

Elkartasun gogoak batzen ditu bertoko kideak eta konbentzitutak daude egiturazko pobreak giza eskubideak urratzen dituela. Hala ere, elkartasunaz duten ideiak, bat egiten du pertsonen eskubideak genero-berdintasunetik erabili ahal izatearekin.

Mundubatek lan egiten du eskubide eta alternatiba sozial eta ekonomikoak aldarrikatzen dituzten eta demokrazia parte-hartzailea sustatzen duten komunitate eta herri-erakundeekin. Haien lankidetzaren

herri-erakundeek zerbitzura dago, bai gizarte-eraldaketarako prozesu soziopolitikoak babesteko, eta baita herri-ekonomiak eta herritarren partaidetza garatzeko ere; horretarako proiektu eta programa ugari jarri dituzte martxan. Mundubat Fundazioaren esanetan, herritarren ikuspegi kritikoa bultzatzen dute eta nazioarteko aliantza eta sareetan egindako lana dute oinarri.

Gizarte eraldaketa bultzatzen hamabi herrialdetan

2010. urtean Mundubatek honako ildo estrategikoak lehenetsi ditu: partaidetzazko garapen endogenoa, herri-ekonomiak eta herritarren partaidetza. Gainera, generoak garapenean duen garrantzia eta elikadura subiranotasunean ere sakondu dute. Garapenaren aldeko laguntza ofizialak murriztagoak izan badira ere, Mundubatek aitortu du 2010ean bere helburu estrategikoa bete ahal izan duela: hau da, garapenari eta gizarte ekintzari dagozkion programa, proiektu eta hitzarmenak behar bezala kudeatzea. Guztira, ehun proiektu inguru izan dira.

Proiektu eta programa horien bidez, gizarte-eraldaketa bultzatu

2010ean laguntza ofizialak murriztu diren arren, martxan dituen proiektu eta hitzarmenak bete ahal izan ditu Mundubat-ek.

nahi izan dute Amerika, Afrika eta Ekialde Hurbileko hamabi herrialdetan. Besteak beste, alderdi hauek jasotzen dituzte: osasun eta hezkuntza-sareak sortu eta hobetzea; osasun hobekuntza eta elikadura segurtasuna; nekazarien antolamendua sendotzea; emakumearen partaidetza politikoa, antolamenduzkoa eta produktiboa; elkartasuneko ekonomia-aren esperientziak; herri indigenen eskubideak babestea; preso politikoei, atxilotuei eta horien familiei laguntza psikosoziala ematea; komunitateko abeltzaintza iraunkorraren nekazaritza produktzioa hobetzea; emakumeen garapen sozioekonomikoa; baliabideen kudeaketa mankomunatu iraunkorraren eredu integrala lantzea; kooperatibak sortzea; urakanek suntsitutako azpiegiturak konpontzea; nekazaritza eta abeltzaintzako produktzioa babestea; emakumeentzako prestakuntzarako ikastegiak; sexu eta ugalketa osasunerako estrategiak, eta abar.

Nondik iristen da finantzazioa?

Proiektu guztiak aurrera ateratzeko dirua hainbat erakundek eman izan dute. 2010ean Europar Batasunak 2.213.748 euro eman zituzkion Fundazioari. Espainiako hainbat erakunde publikotatik ia lau milioi euro ailegatu zitzaizkien eta Eusko Jaurlaritzatik eta aldundietatik beste 3,5 milioi euro. Azkenik, fondo pribatuen bidez 632.273 euro jaso zituen Mundubatek.



Guatemala. 1.300.549 euro inbertitu ziren iaz Guatemalan, besteak beste Solola Departamentuan ekoizpen talde teknifikatuak sortzeko. Beste 11 proiektu ere martxan dira.



Chiapas. 1988tik ari dira lankidetzan eta iaz 551.018 euro erabili ziren bederatzizko proiektutan. Chiapaseko gatazka sortu zuten oinarritzko arrazoiek bere horretan dira.



Kolonia. 822.360 euro erabili ziren 2010ean 7 proiektu aurrera eramateko. ONIC Erakunde Nazional Indigenarekin harreman estua dute horretarako.



Bolivia. Emakume indigenekin eta nekazariekin zerikusia duten erakundeekin lanean ari dira. 2010ean sei proiektu zeuden martxan 298.569 euroko aurrekontuarekin.



El Salvador. Zortzi proiektu eta 657.071 euro kudeatu zituen Mundubatek bertan. Talde sozialen eta gobernu berriaren arteko harremanak koordinatzera bideratu ziren.



Honduras. Estatu kolpearean ondoren, giza eskubideen alde ari diren taldeekin lanean dihardu. 355.232 euroko aurrekontua du hamar proiektuentzat.




Kuba. Guantanamo, Cienfuegos, Santiagon eta Habanan dihardute 13 proiektutan eta 2010ean 391.302 euroko aurrekontua izan zuen Mundubatek. Elikagaiak ekoiztea da lehentasunetako bat.

Nikaragua. Dozena erdi proiekturen bidez, herrialde horretarako erakundeetan genero ikuspegia indartu nahi izan da. 351.784 euro erabili dira horretarako.



Palestina. Qalqilia eta Gazako nekazariak ekoizteko eta garatzeko tresnak eskaini dizkie. Horrez gain, preso politikoei, atxilotuei eta hauen senideei laguntza eman die Mundubatek. 2010ean 629.041 euro zituen 10 proiektuentzat.



Brasil. Elikagaiak masiboki esportatzearen kontrako politikak bultzatu ditu Mundubatek eta San Paoloko talde feministekin ere elkarlanean dihardu. 11 proiektu eta 280.487 euro ditu horretarako.



Mendebaldeko Sahara.

Herrialde honetan egin du Mundubatek inbertsio handiena, 2.791.798 euro hain zuzen. Errefuxatuen kanpamenduetan laguntza humanitarioa eskaini eta Polisarioarekin elkarlana landu du.



Mozanbique. Nekazarien Batasun Nazionala (UNAC) indartzea da helburu nagusia, elikadura subiranotasuna lortzeko bidean. Hiru proiektu dituzte martxan eta 2010ean 49.220 euro gastatu zituzten.

Maria Gonzalez Gorosarri

«Ez dakizu zer ikusten zabilzan, edo albistegiak edo 'Euskadi Directo'»

Mallabian bizi den kazetari durangarrak (1978) tesia argitaratu berri du: *Albisteen kalitatea: Euskadi Irratia, ETB1 eta Euskaldunon Egunkaria / Berria* (Research on Basque Media's News Quality). Besteak beste euskarazko hedabideetako albisteen kalitatea erdarazkoena baino okerragoa ez dela erakutsi du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Argia

GONZALEZ GOROSARRIREN asmoa albisteen kalitatea neurtzeko metodologia sortzea izan da, gero metodo hori euskarazko hedabideetan, eta baita gainerakoetan ere, aplikatu ahal izateko. Horrezaz gain bi ikerketa lerro landu ditu Txema Ramirez de la Pisciñak zuzendutako tesian: bata, sorreratik 2008ra euskarazko hedabideetan albisteen kalitateak zer norabide hartu duen, eta bi, 2008ko hainbat albiste hartu eta euskarazko eta erdarazko hedabideetan alderatu ditu.

Euskarazko hiru hedabideetan administrazioak protagonismo handia hartu duela diozu. Zer esan nahi du horrek?

Albisteko protagonista nor den jakiteko lau talde bereizi ditut. Bat: administrazioa deitutakoa, alegia, alderdi politikoa guztiak, azken batean estatu egiturarekin bat datorren kontzeptua. Bi: gizarte eragile profesionalak, hots, komunikazio kabineteak eta profesionalki eratuta dauden eragileak, hala nola, sindikatuak, kirol taldeak... Hiru: gizarte eragile autonomoak –langileen asanbladak, gizarte mugimenduak... gizartean lanean dihardutenak–. Lau: protagonista identifikatuta ez daukaten albisteak.

Administrazioa gero eta indar gehiago hartzen ari da, baina bera-



“Estatu Batuetatik datorren albiste uholdearen aurkako kontzientziarik ez daukagu”.

gaz batera, protagonista identifikatuturik ez daukaten albisteak areagotzen ari dira. Adibidez, istripuak eta hondamendi naturalak. Batez ere gizarte eragile autonomoak dira lekua galdu dutenak, baina egia da, adibidez, *Berriak* protagonista horiei heldu diela. Hedabide publikoetan ez da hala gertatu.

Politika gaiak murrizten doaz, eta gizarte gaiak indar hartzen.

Titularretan eta hedabideetako lehen orrietan, Gizarte sailak gero eta tarte handiagoa hartu du.

Gizarte sailaren tamaina handitu duten albisteak ordea, ez dira gizartean eragiteko albisteak, eta ez dira gizarte mugimenduen sortutakoak. Albiste estatikoak dira, arinak: ezbeharrak, hondamendi naturalak, ikuskizunak, irudiaren bidez sartzen direnak... ez dira albisteak... ez daukate albiste edukirik. Ez dakizu zer ikusten zabilzan, edo albistegiak edo *Euskadi Directo*. Hedabide idatzietara ere joera hori heltzen ari da. Ezbeharrek leku handia daukate, batez ere irudia badaukate.

Istripua adibidez.

Eibarko autopistan kamioia zubitik eskegita, adibidez.

Berri hornitzaileekiko mendekotasunak ere gora egin du aztertutako hiru hedabideetan.

Albistegintzak bi prozesu dauzka: hautaketa eta hautatuko albistea garatzea. Gero eta kalitate handiagoko albisteak hartzen dira. Jakina, munduko edozein puntatan gertatutako edozeren berri eduki dezakegu. Baina, kontua da gero albiste hori garatzeko esku hartzerik ez daukagula.

Ez daukagu informazio hori kontrolatzen duten albiste iturriak, adierazpenak, aitzindariak... Mendekotasunak hori adierazten digu, ez dakit non gertatutako albistea ematen dizu, baina hark emango dizu zuk emango duzun informazio guztia, ez daukazu sakontzeko aukerarik. Mendekotasun hori areagotuz joan den bitartean euskarazko hedabideek albisteak sortzeko gaitasuna galdu dute.

Kazetaritza lasterraren eredia aipatu duzu.

Azaldutakoaren ondorioz sortu den kazetaritza eredia da: kanpotik—berri agentziak edo komunikazio kabineteak— datorren albistea, eurek emandako informazioa, birmoldatu eta atera. Lan eredu horretan gero eta zailtasun handiagoak daude Euskal Herrian eta euskal edukiekin hornitutako albisteak sortzeko.

Adibide bat eman al zenezake?

Dominique Strauss-Kahn, DSK kasua. Begira nor den protagonista,



"Gizarte sailaren tamaina handitu da, baina albisteek ez dira gizartean eragitekoak, eta ez dira gizarte mugimenduek sortutakoak".

non gertatu den, zein momentutan—gauez, hegazkina hartzeko zegoela—, eta hurrengo egunean hiru hedabidek horren berri eman zuten. Baina gero, bestelako ikuspegiak emateko aukerarik, haren aurrekariak topatzeko biderik ez da egon. Berari ateratako argazkiak edo telebista edo irrati korteak

**"DSK kasuan salduta
zaude. Maskarada berriz,
ustez, gure esparrua
litzateke, baina ez dugu
horretan eragiten"**

beste batek bidali dizkio kazetariari. Maskarada baino inpakto handigoko albistea da, baina Maskaradan garatzeko askoz ere baliabide handiagoak daukazu eta independente egiten zaituzten baliabideak kudeatu ditzakezu. DSK kasuan salduta zaude. Euskal Herriko erdarazko hedabideek euskarazkoek besteko informazioa daukate DSKri buruz, ez guk baino gehia-

go. Maskarada berriz, ustez, gure esparrua litzateke eta ez dugu horretan eragiten.

Gure komunitatean eragiteko gaitasuna galdu dugu...

Estatuekiko, Espainia eta Frantziarekiko, distantzia mantentzen dugu, horren kontzientzia bagarelako, baina Estatu Batuetatik datorren albiste uholdearen aurkako kontzientziarik ez daukagu. Nazioarteko albisteen kopurua gero eta handiagoa da, eta pentsa daiteke mundu osokoak direla, baina ez, Estatu Batue-

tako albisteak dira edo Estatu Batuetako berri agentziek zabaldutakoak. Adibidez, titularretan edo lehen orrian, 2008an, *Berriak* Espainiako Gobernuaren albiste bakoitzeko Estatu Batuetako Gobernuaren bost albiste sartzen zituen.

Hedabideak gizartearekiko atxikimendua galtzen doazela diozu.

Hedabide horiek sorreran jarritako helburuekiko distantzia zabalduz doa, horrekiko kontzientziarik ez dagoelako, edo baliabiderik ez dagoelako. Kontzientzia izan den garaietan bestelako kazetaritza bat gauzatu da. Urteak aurrera egin ahala erlaxatu egin da kontzientzia. Kazetaritza, azken finean, boterearen iragazkia da eta hori barik botereak (berri agentziak) publizitate hutsa zabaltzen du. Iragazki horretan eragin behar da. ■

<http://hanetahemen.blogspot.com>
blogean aurkituko dituzu Bea Sallaberryren hausnarketak eta kontakizunak.

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elibiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."





MONIKA DEL VALLE

Goian Kapanaga 1998an ARGIArako egindako elkarrizketan.

Bittor Kapanaga hil da

UZTAILAREN 14AN hil zen Gasteizen Bittor Kapanaga euskaltzalea,

85 urte zituela. Otxandion jaio zen 1925eko urriaren 15ean. Euskal kontzientzia hamahiru urterekin eskuratuta, Eibarrera joan zen industria-maisu ikasketak egitera, eta, bertan zela, 1952 inguruan, Eibarko gerraosteko euskal mugimendua sortu zuen beste zenbait euskaltzalerekin batera. 1953an *Euzko Gogoa* aldizkarian idazten hasi zen, eta, gero, *Zeruko Argian* eta beste hainbat argitalpenetan. 1978an *Euskera erro eta gara* liburua argitaratu zuen, gure hizkuntzaren erroen bila joanda. Gontzal Mendibilek sortutako *Arabian bagarre* kantaren letrak egin zituen Kapanagak.



ARGIA

Xabier Azanzak ez du Euskarabidean segiko

XABIER AZANZAK gutuna bidali die lau urteko ibilbidean harremana izan duen erakunde, eragile eta lan-kideei. Nafarroako euskara eremuko eragile batek ARGIAri adierazi dionez, Gobernu berriak kargutik kendu du Xabier Azanza. Dirudieenez, Euskarabidea erakundeak bere horretan segiko du eta litekeena da Azanzaren ordezkoa Maximino Gómez Serrano izatea. Hezkuntza Departamentuan egin du lan Gómezek eta bertako Euskara Zerbitzuko zuzendari izan zen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gure kutxek ondo eusten diote

Banku eta aurrezki kutxei Europar egindako erresistentzia proben emaitzak joan den astean jakin ziren, eta krisi eszenatoki baten aurrean, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxek maila ona dutela ziurtatu dute. Kaudimen handiena duten finantza entitateen artean kokatu dira. Kutxa, %10,3ko kaudimenarekin, Espainiako Estatuko kutxen artean hoberena izan da. BBK-k, Cajasur erosi eta gero handicap bat zuen arren, %8,8 lortu du; eta Vitalek %8,7. Banca Cívicaen barruan dagoen CAN, burtsara aterata da aste honetan, eta Hego Euskal Herriko kutxen artean kaudimen gutxien erakutsi duena izan da, baina frogatuta du, %5,6rekin hain zuzen. Kontuan eduki behar da erresistentzia test hauek ez dituztela aurreikusitako euskal entitateek kaudimen eza dagoenerako dituzten erreserbak eta probisioak. Horiek aintzat izanez gero, gure kutxen kaudimen kalifikazioa are handiagoa litzateke.

Gauzak horrela, ez da ulertzen kutxen arduradunek eta euren ordezkari politikoen zati handienak bankarizatzearen alde egitea. Bankarizatzearekin, Gizarte Ekinntza arriskuan jartzen da, kutxen egitekorik bereziena. Bankarizatzearekin, behin Kutxa Bank banku berria burtsara irtenda, planetako edozein inbertitzailek kontrolatu eta absorbitu dezake. Probetan erakutsi duten moduan, euskal kutxek hain kaudimen handia izanik, "mokadu" goxoa lirake munduko edozein lekutako espekulatzailerak eta inbertitzaileentzat.

Probek demostratu dute kutxa bakoitzak bananduta, hala nola guztiek batera, kaudimena dutela, euren funtzio soziala betetzen jarrai dezaketela, eta ez dutela kapitalizazio handiagoaren beharrik. Ondorioz, fusioaren alde egin eta Euskal Herriko kutxa bakar, irmo eta indartsua sortzeko ordua da, bai eta bere bankarizatzea eragozteko ordua ere.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak erabili.com-en esanak:

"Espainiako Estatuak Euroituna orain dela hamar urte berretsi bazuen ere, oso urrun dago bertan jasotzen dena betetzetik, eta onartezina iruditzen zaigu Estatuan indarrean dagoen corpus juridikoa baino apalagoa den Euroituna bete ez izana. Horrek agerian uzten du geure hizkuntzaren normalizaziotik eta euskaraz bizitzeko dugun esku-bidetik urrun gaizkatela".

Bittor Hidakok [Garan](#) esanak:

"Gure politikariak jendaurrean beti euskaraz egitea hautatzen badu, hedabide guztiek euskarazko hitzak jaso beharko dizkiote beti, zuzenean erakutsi nahi badute, nahiz gero bere hitzak itzuli beste zeinahi hizkuntzatarara. Baina politikariak erakutsiko du, bagarela, ahal dugunean, euskaraz bizi nahi dugun herritarrek".

Atzeak aurrea dantzatzeko duelako

BORROKA, gaitzespena eta sufri-mendua, hara azken hamarkadatan euskal gizartean indarrean izan diren berba giltzarrietakoak. Enpatia, adimen emozionala eta pazientzia izan beharko dute datozen urteetan gure artean prima balore handiena izango duten kontzeptuak. Gatazka bortitzaren sareetan –jarri nahi bada terrorismo totalitarioaren erasoan– harrapatua egon den edozein gizartetan bezala gertatuko da hemen ere, hautua egin beharko duela: edo gatazkan jarraitu, edo bizikidetzaren bidean abiatu. Ezker abertzaleak, ENA-Mek, erabaki bide du: bukatu da borroka armatuaren zikloa eta presta gaitzeen beste garai baterako. Eta listo. ETAre azken agiriak ere norabide hori agertzen zuen nahiko nabarmen, baina dena aitor-tzera, beti ere oraindik lerro arteko irakurketan borondatea jarrita.

Baina ez, “eta listo” ez da nahikoa. Ez da pistola olibondo adar-gatik aldatzea eta kito. Ezinbestekoa da iraganarekiko azterketa kritiko zorrotza, etorkizuneko bizikidetzaz –ez ezinbestean berradiskidetzaz– eraiki ahal izateko. Iraganaren miaketa gazi-gozaoren oreka da.

Apurka bake prozesu bat egituratzen ari den honetan, alabaina, Estatuzaleen aldetik ez dago hain argi zein den ezker abertzalearen aldebakarreko erabakiari eman beharreko erantzuna. Zantzu batzuk irakurketa baikorra dute eta beste batzuk ezkorra erabat. Argia dakartenen artean hauek: Bilduren legezatztea, biktimen eremuan emandako pauso txiki eta ia ikusezin batzuk, Parot doktrina zalantzan jartzea Konstituzionalean, Donostia 2016... Hauei, aldiz, iluntasuna daria: Bateragune auzia eta datozen auzi berriak; hainbat atxiloketa edo atxiloketa agindu, lege berri zingirazaleak, Espainiako iritzi



publikoaren tratamendu orokorra, biktimen erabilera...

Horrez gain, hor da “Bildu shock” horretan harrapatua geratu den iritzi sortzaileen multzo zabala. Duela gutxi arte –edo “berun denboretan”, hauetako askok esango lukeen moduan–, aski zen armak uztea eta bizitza politikoa integratzea. Armarik gabe edozer da posible, armekin ezer ez. Gaur egun, irudi luke horietako inork ez duela inoiz halako haririk jaurti. Gaur egun garaile eta garaituak behar dira eta iraganaren irakurketa estatista-konstituzionalista –horrek egiten baitu demokratiko–. Utikan elkarrizketa eta bizikidetzaren prozesu zabalak –hori amore ematea baita–!

HISTORIA hurbila kontatzeko ordua hasi da, gure historia hurbila, gizartearen gehiengo batek bizi izan duena, horra unearen urduritasuna eta konplexutasunaren klabea. Hori da kontua, etorkizuna eraikitzeko klabea den putzu sakon eta ilun horretan murgildu garela, eus-

kal gizarteak bere irakurketa egin behar duela; edo irakurketak. Eta alde desberdinek ere beren barne irakurketak egin behar dituztela.

Zeren eta, noiztik da ETA terrorista? 1958an sortu zenetik? 1968an Pardines Guardia Zibila hil zuenetik? Francoren heriotzatik aurrera? Hiperkorretik? Edo Miguel Angel Blancoren bahiketa eta hilketaz geroztik? Izan al zen baina benetako trantsizio-rik Espainian? Edo behar al du bigarren trantsizio-rik? Bortizkeria, ETAre bakarrik? Estatuak izan al du zigorrak merezi duen jardura ilun? Espainiako Konstituzioak kaiola itxi ala ateak zabaltu zizkien herriei? Zertarako balio izan du biolentziak? Zergatik ez zen hobea ENAMentzat borroka armatua Aljerreko negoziazioen ondoren uztea? Edo Lizarra-Garazirekin bat?

Horiei eta beste hainbesteri erantzuteko unea heldu da, lehen-txeago edo geroxeago egingo dena, hobeto edo okerrago bideratuko dena. Euskal gizartean badirudi eragile politiko ia guztiak daudela horretan, alderdien arteko elkarrizketa zabalera iritsi aurreko dantza luze eta konplexu horretan. Denak?

Denak ez, bada Nafarroan eta Araban gotortu den eskuindar talde bat, garai berrietara egokitze asmo edo gaitasun gutxi agertzen duena, baina epe laburrean arde edo so erabaki beharko duena. Eta denak aditzera ematen duenez, udazkenetik aurrera erabaki beharko du, Espainiako hauteskunde orokorrak irabazi ondoren. Estatu batek dituen tresna eta ahalmen guztiak izango ditu lagungarri ibilbide horretan. Eta tresna garrantzitsuena euskal presoena, gezurra badirudi ere gaur inoiz baino gehiago, Estatuaren gatibu eta bere helburu politikoak lortzeko tresnarik erabilgarriena.

PELLO ZUBIRIA

Benetan hainbeste kostatu da botika garesti hori?

Botikak hain karu zergatik dauden galdetuta, farmaziako industriak argudiatzen du horietako bakoitza aurkitu eta frogatzeko lanak izugarri kostatzen direla. Begi zorrotzeko irakurleak aspaldi zekien hori ez zela horrela, zerbaitengatik baitira konpainia horiek etekinik handienak lortzen dituztenak. Orain, benetako zifra eta frogak azaldu dira.

ARZNEI-TELEGRAMM EUSKARAZ Medikuntzako Kronika litzateke, medikuntzako albisteak biltzen dituelako. Baina osasun etxeetan ikusten dugun medikuntzako prentsa ia guztia ez bezala, *Arznei-Telegramm* osorik independentea da. Erreferentzia da alemaneraz mintzo diren medikuen, erizainen eta gainerako herriarrentzako, gaixotasunei eta botikei buruzko informazio guztia farmaziako multinazionalak kontrolatzen duten eremuan.

40 urtez kaleratu den *Arznei-Telegramm*ek 2000.etik egoitza leku zoragarrian dauka: Berlingo Steglitz auzoan 1919an eraikitako ur biltegi batean. 40 metroko altuera du Steglitz Wasserturm dorre adreiluzko modernista dotoreak. Udan Berlinera hurbilduko ez garenok fotoetan ikusita konformatuko gara.

Zuzendari Peter Sawicki mediku diabetologoa duen aldizkari doixtarren eduki nabarmenetako batzuk frantsesera itzultzen ditu *Pharmacritique* gunekak. Horrela ezagutu ahal izan dugu 2010eko abuztuan *Arznei-Telegramm*ek argitaratutako *Gute pillen, schlechte pillen* (Botika onak, botika txarrak), sarreratxo hau darabana: “800 milioi dolar kostatzen den botikaren mitoa. Benetan zenbat kostatzen da erremedio bat garatzea?”.

Farmaziako konpainiek eten gabe zabaltzen dituzte botika berriak

asmatzen xahutu behar izan dituzten diruez. Alegia, garatu eta frogatu dituzten 5.000 edo 10.000 molekula berritak bakarra iristen dela homologaturik merkatuetara, eta hori sekulako dirutzak inbertitu ostean. Hain arrisku handitan murgildu baldin badira, normala botikek hori gero prezioan agertzea.

Inbertsio horiei Alemaniako konpainia handienak biltzen dituen elkarteak 2000.ean kopuru zehatza ezarri zien: farmaziaraino iristen den botika berri bakoitza egitea batz bestea 802 milioi dolar kostatu da. Zehaztasun horrekin esanda, iduri luke kontabilitate lan zorrotz baten fruitu dela. AEBetako PHARMA patrolanalak, berriz, 1.200 milioi dolarretan utzi zituen kalkuluak.

*Arznei-Telegramm*ek larrugorritan ipini ditu kopuruok. Hasteko, ikerlana burutu zuten erakundeak ez dira beraiek dioten bezain “independenteak”: hein handi batean industriak finantziatzen ditu. Bestalde, zifra horietara iristeko erabili dituzten iturri eta datuak sekretuan gorde dituzte, ezin dira inolaz kontrastatu.

Bitxi egiten da, hala ere, jakitea botika berri baten kostea 802 edo 1.200 milioi dolarretan finkatzean aitormen hau egin dutela botikagileek: industriak benetan 403 milioi inbertitu omen ditu eta hortik gorako zifra da diru horrek emango zien

www.dsreps.com webgunetik hartu dugun irudi honek erakusten du Remicade (Infliximab da molekula) botikaren promozio erakargarria. Anti TNF botiken artean famatuenetakoa den hau, usu eskaintzen zaie artritisa, espondiloartritisa, psoriasis, Crohn edo kolitis ultzeraduna diagnostikatutako gaixoei, testuak iradokitzen duenez berriro lehengo bizimodua egiteko itxaropena berpiztuz. Agian laster “botikok usu eskaintzen zitzaizkien” esan beharko dugu, krisi ekonomikoak osasun sistemara dakartzan murrizketak aurreikusita. Botikok daude garestienen artean. Remicade Janssen Biotec Inc. enpresak egiten duela diote paperek, baina sakonago begiratuta, gibelean Johnson & Johnson multinazionala dauka, mundu osoan barreiatutako 118.000 enplegarekin 2010ean 17.000 milioi dolar irabazi zituen.

etekina baldin eta inbertsio emankorragoetan ipini izan balute. Pernando Amezketaarren arrautzen ixtorioa gogorarazten dute; Amezketa mutil batek ostatuan zortzi arrautza jan, haiek pagatu gabe utzi eta hamar urteren buruan ordaintzera joanda tabernariak zortzi arrautzetatik hamar urtean ugarituko ziren 16.000 txitak kobratu nahi izan baitzizkion.

Dirua marketinak darama

Ageri da farmaziako konpainiak nagusiki inbertsio funtsen eskuetan egonik, hauek heiei estiloa erantsi dietela. Inbertitutako diruarekin irabazi ahal izan zutena (balizko etekina) urteko %11an kalkulatu baitute. Ondo egia da izakiak sendatzea bihurtu dela munduko negozioerik emankorrena.

Botikak garestitu nahi horretan, ikerketa urteen zenbaketa ere behartu dute konpainiek. Molekula bakoitza sortu eta merkaturatu arte 11,8 urte pasatzen direla dio industriak; aldiz, *New England Journal of Medicine* eta beste zenbaitek demostratu du 1992tik 2001era arte epe hori jaitxi zela 8 urtetatik 5 urtetara.

Sinesgarriak ote dira botikagileek aitortzen dituzten 403 milioi horiek, balizko irabaziak alde batera utzirik zuzeneko inbertsioetan gastatzen omen dituztenak? *Arznei-Telegram-*

For patients with moderately to severely active Crohn's disease who haven't responded well to other therapies.

Remember that day you felt like one of the gang again?



LET'S MAKE IT LAST

REMICADE® provides long-lasting control of Crohn's symptoms, as shown in a 1-year clinical study.

Remicade
INFLIXIMAB

mek salatu du kopuru hori izateko-tan dagokiela botika berrien arteko garestienei. Hau da, berrikuntzen %20a osatzen dutenei, tartean immunitate sistemarekin lotutako eritasunentzako (artritisak, hesteeta-koak, azalekoak, esklerosiak, kantze-rrak eta beste) hain famatuak egin diren Anti-TFN edo biologiko dei-tuentzako.

Botikak hain karu saltzea defendi-tzen dutenek bestelako datu esangu-ratsuak ahazten dituzte inbertitu dituzten diruen jatorriaz. “Ez dituz-te kontutan hartu hobari fiskalak, nahiz eta hauek iritsi batzaz beste kosteen %39ra”, dio *Arznei-Tele-grammek*. Horregatik mugitzen dira konpainiok herrialde batetik bestera. Horregatik, “pentsatu behar dugu

botiken ikerketarako gastuen erdia inguru azkenean herritarron zergeta-tik pagatzen dela. Baina ez da hor bukatzen herritarron sakrifizioa.

Gaixotasunei buruzko eta hauei aurre egiteko bide posibleez oina-rrizko ikerketa unibertsitateetan egi-ten da, diru publikoz hornituta. HIESaren kontrak botika nagusia den AZTren molekula, Zidovudina, da horren adibidea.

Zidovudinaren oinarritzko ikerke-ta diru publikoz egin zen, hasiera batean kantzerraren kontra balioko zuelakoan. Gero HIESaren kontra dauzkan eraginak AEBetako *Natio-nal Cancer Institute*rek demostratu zituen. Baina beranduago Burroughs Wellcome (GlaxoSmithKline erral-doiak irentsia) enpresak aldarrikatu

zuen erremedioa osorik berak garatu zuela. Erakunde publikoetako ikerla-riek zorrotz erantzun behar izan zuten gauzak garbi uzteko.

Farmaziako industriak egiten dituen kalkuluen aurrean, Estatu Batuetan Donald W. Light medikuak eta Rebecca Warburton ekonomiala-riak *BioSocieties* aldizkarian eskaini dituzte berenak *Demythologizing the high costs of pharmaceutical research* ikerlanean. Hauen kontue-tan, botika garestienen artean dau-den Rotarix eta Rotateq (rotavisuen kontrako txertoak) lehena garatzea 128-192 milioi dolar kostatu da eta bigarrena 137-206 milioi artean. Eta hala ere, komertzializatu eta urte beterako amortizatuta edukiko dituzte.

Gainerako erremedioek, txertoen aldean delako III. faseko froga klini-ko zabaletan hainbeste gastatu behar ez dutenek, batzaz beste 43,4 milioi dolarreko kostea dute. Konpainiek emandako zifren %7 baino gutxiago!


Baina zifra hori bera ere xahuketa dirudi, kontutan edukitzen badugu merkaturatzen diren botika gehienak sasi-berrikuntzak direla. *Arznei-Telegrammek* dionez, “azken urteo-tan homologatutako botiken %85ek ez dakarte aurretik zeuden erreme-dioekiko hobekuntza nabarmenik”.

Botika berrien kosteen esajerazio-arekin, konpainiek errealitate gordin hau ezkatatu nahi dute, *Arznei-Tele-grammen* hitzetan: “Farmaziako korporazioek ikerketan gastatzen dutena halako bi xahutzen dute mar-ketin komertzialean. Horregatik diogu ikerketa eta garapeneko gas-tuek ez luketela aitzakia izan behar botiken prezioak garestitzeko”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Anuntxi Arana

Saiak, putreak eta arranoak

Mendizaleen miresgarri izaten dira saiak, haien largabisten jo muga eta gure bazterrak erakusten dituzten liburu eta argazkietako lehen-gai ezin utzia. Ez dute lortu, ordea, behialako fama txarra gainetik kentzen. Alhapideak ustelkeriatik garbitzen dituztela ekologistek irakatsi eta guk ikasi dugunean, abere biziei erasotzen zaizkiela esaten digute orain abeltzain batzuek, eta badirudi gorrotatuak izatera kondenatuak direla berriz gure eskualdeko hegazti handienak. Sarraskijaleak baitira, besteen heriotzaz gizentzea eta hurkoaren malurra probestea leporatzen zaie, ez bereziki natur zientzien ikuspegitik, baizik eta metaforaz norbait gutxietsi nahi denean, politikoki batez ere, arlo horretan oso hizkera margotsua erabiltzen da eta.

Oso aspaldikoa da saien arbuioa, antzinako borroka zelaietan ageri da haien itzal iluna. Louvre-n dagoen sumeriar harri zizelkatu ospetsu batean ikusten da nola, garaileek garaituak zanpatzen dituzten bitartean, saiek gorpuzkinak bereganatzen dituzten. Eta hori zatekeen gudarien bukaera gaiztoena, Iliadan azaltzen denez: “Zakurrek eta saiek urratuko dute zure gorpu osoa”, ihaurti zion Akilesek bere eskuz heriotzua zuen Hectorri, behar bezalako ehorzketarik izango ez zuen ikara dastatuz hil zedin.

Ez da denetan hola izan, eta, hain zuzen, alderantzizkoa zen grekoen etsai eta sumeriarren hurbil ziren antzinako pertsiarrentzat. Mazdeistek eguzkitan uzten zituzten gorpuak, “isil dorreak” deitzen diren erai-kinen gainean, zeruko iza-kiek eramanda goiko paradisura hel zitezen; eta hala egiten segitu dute 1960an debekatu zieten arte: geroztik sairik ez omen da gehiago inguru haietan. Baxenabarreko Urkulu tontorrean eraikia den monumentu borobila isil



GAIZKA IROZ

dorrea ote zen espekulatu zen behiala, haren siluetak Iraneko “dekhma”k gogorazten dituelako —erromatarren trofeo dorrea izan zen ustea da orain nagusi—. Ohitura bera dute gaur egun Tibeten, eta hango eskualde batzuetan gorpuak pres-tatu egiten dituzte “hegazti santuek” jan ditzaten.

Sakratuak ziren saiak antzinako Egipton, Nekhbet goi anderearen itxura eta beste zenbaiten buru-apaingarria; baita, Goi Lurraldeko erregetzaren sinbolo gisa, faraon koroaren osagaia. Ateburuetan ezartzen zuten saiairen irudi ongilea, azpian pasatzen zirenak babes zitzaiz, eta berezko bertute hori heriotzatik bizia ateratzeko gaitasunetik heldu omen zaio, bizitzaren zikloa eta berpiztea bideratzen dituelako.

Gure mundu aldrebesean, aldiz, arranoa da goraipatzen, elikatzeko hil behar duen ehiztaria. Heraldikan daukan prestigioa jantzita, eta gure ingurumentxoan beltz lumaztua, askotan inarrosi izan da aberriaren loriako. Eta aitzitik, putrea deitzen zitzaie iraindu nahi ziren aurkari

politiko hurbilenei. Baina nork agindua da Arranomendi Butreaitz baino ikusgarriago dela? Ekialdeko euskalkietan, bestalde, arrano (eta zehazkiago arrano beltza) esaten diote *gyps fulvus* espezieari, hau da, putreari.

Orduan, zertara datoz txori istorio eta ornitologia ergel hauek, azkenean denak berdin antzekoak direla aitortzeko bada? Eta halere, paregabea da putrea. Goian zabal-zabala pasatzen ikusten dugunean edo, apal eta gure buruari hurbil iragartean, haren lumen xuxurla aditzen dugunean, dudarik ez dugu: hilik ote gauden usnatzera hurreratu bada ere,


hura da euskal kantutegiko abesti ederrean begiesten den hegaztia. “Arranoak bortietan, gora dabilta hegaletan...”. ■

Gure mundu aldrebesean, aldiz,
arranoa da goraipatzen, elikatzeko hil behar
duen ehiztaria. Heraldikan daukan prestigioa
jantzita, eta gure ingurumentxoan beltz
lumaztua, askotan inarrosi izan da aberriaren
loriako. Eta aitzitik, putrea deitzen zitzaie
iraindu nahi ziren aurkari politiko hurbilenei.

Baina nork agindua da Arranomendi
Butreaitz baino ikusgarriago dela?

ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



**INDOOR
KARTING**


Tolosa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

3



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

4



Nairobi tarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2284. Argia)

ANDRA MARI JATETXEA

• Josu Mendicute Rodriguez (Eibar)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

• Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
• Iruñe Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
• Amurrioko Udal Biblioteka (Amurrio)

ILLIMANI

• Patxi Xabier Erezkano Mardaraz (Bilbo)
• Felipe Iruretagoiena Elortza (Zarautz)

EUREKA! zientzia museoa

• Haritz Eguren Urrestarazu (Zerain)
• Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)
• Unai Dorronsoro Zeberio (Bilbo)

ZAIN XXI. mendeko piratak CDa

• Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
• Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)
• Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

XABIER LETE GOGOAN

KANTALDIAK

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
ERRAMUN MARTIKORENA
AMAIA ZUBIRIA
PETTI
JOXAN ARTZE

Abuztuaren 11n
ARANTZAZUKO SANTUTEGIAN
19:00etan

Antolatzailea:



arantzazuGaur
FORALDEAN BIZIAREN GAIU TROBATERIA

Babeslea:



Sarrerak salgai: Musika Hamabostaldiko bulegoa
Oñatiko turismo bulegoa

ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
AMAIA ZUBIRIA
TXOMIN ARTOLA
JABIER MUGURUZA
XABIER EUZKITZE
PETTI

Abuztuaren 6an
HONDARRIBIKO
GIPUZKOA PLAZAN
22:30etan

Antolatzailea:



argia

euskadi
irratia

anza
komunikazio grafikoa



+34 619 421 153